

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

34/2021 Foru Araua, abenduaren 23koa, ekonomia suspertzeko neurriak, TicketBAI aplikatzeko neurriak eta zergen arloko neurri batzuk ezartzen dituen

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko abenduaren 23an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

34/2021 Foru Araua, abenduaren 23koa, ekonomia suspertzeko neurriak, TicketBAI aplikatzeko neurriak eta zergen arloko neurri batzuk ezartzen dituen.

ZIOEN AZALPENA

Foru arau honen xedea da jarduera ekonomikoa bultzatzeko neurriak hartzea, TicketBAI izenez ezagutzen den betebeharra borondatez betetzea sustatzea eta Arabako zerga sisteman beste aldaketa batzuk sartzea.

Horretarako, Foru Arauak hiru titulu ditu, eta horietako bakoitza aipatu berri diren gaiei buruzkoa da.

I. tituluan, ekonomia suspertzeko neurriei buruzkoan, nabarmentzekoa da mikroenpresetan, enpresa txiki eta ertain berrietan edo sortu berrietan, enpresa berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiarekin lotutakoetan inbertitzeagatiko kenkariaren formulazio berria. Kenkari horrek kontzeptu kengarriak indartzen ditu, eta, berrikuntza espezifiko gisa, zilarrezko ekonomiarekin lotutako jarduerak sustatzen ditu.

Bestalde, enplegua sortzearen kenkaria hobetu egiten da eta hura aplikatzeko baldintza berri bat gehitzen da. Baldintza horrek sexuagatiko soldata diskriminaziorik ez izateari egiten dio erreferentzia.

Ondarearen gaineko zergan eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan ere aldaketak egiten dira, mikroenpresetan, enpresa txiki eta ertain berrietan edo sortu berrietan, enpresa berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiarekin lotutakoetan inbertitzeagatiko kenkariaren aldaketa osatzeko. Ondarearen gaineko zergan, halaber, bizi aseguruari eta aldi baterako eta biziarteko errentei aplikatu beharreko balioespen araua aldatzen da, baita salbuespen bat ere.

II. tituluan hobetu egiten da TicketBAI betebeharra betetzea sustatzeko indarrean dagoen zerga pizgarriaren eraginkortasuna, gehitutako kenkaria ahalik eta zergadun gehienek aplikatu ahal izan dezaten.

III. tituluan bildutako neurrien artean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, likidazio oinarri orokorrari aplikatu beharreko tarifaren deflaktazioa eta baterako tributazioagatiko murrizketaren eta kenkari pertsonal eta familiarren eguneratzea nabarmentzen dira.

Bereziki nabarmentzekoa da mendekotasun edo desgaitasun maila jakin bat duten pertsonentzako laguntzaile pertsonalak kontratatzeagatiko kuotaren kenkari berri baten erregulazioa. Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatiko kenkariaren ehunekoa ere handitzen da, arkitektura oztopoak kentzeko etxebizitza birgaitzen den kasuetan.

Sozietateen gaineko zergaren esparruan, nabarmentzekoa da ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoaren definizioan kontzeptu berriak sartu izana, eta zenbait erreserbaren erregulazioa aldatu izana.

I. TITULUA. EKONOMIA SUSPERTZEKO NEURRIAK

1. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 42. artikulua g) letra aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“g) Entitateen akzioak edo partaidetzak eskualdatzean agerian gelditzen diren ondare irabazien ehuneko 50, hain zuzen ere, horiek eskuratzegatik zergadunak foru arau honen 90. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatu dezakeenean, betiere ondorio horietarako aipatutako manuairen 3. eta 7. apartatuetan xedatzen dena kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko, zergadunak foru arau honen 90. artikulua 6. apartatua aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Salbuespena ondare irabaziaren ehuneko 100era iritsiko da zergadunak aurreko paragrafoetan aipatzen diren akzioak edo partaidetzak eskualdatzean lortutako zenbatekoa berrinbertitzen badu paragrafo horietan adierazitako baldintzak betetzen dituzten beste akzio edo partaidetza batzuk eskuratzen. Kasu horretan, ezin izango da aplikatu foru arau honen 90. artikuluan arautzen den kenkaria, berrinbertsioa gauzatzen den akzioei edo partaidetzei dagokienez.

Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketa jasotako baino txikiagoa denean, aurreko paragrafoan xedatutako aplikatuko zaio berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare irabaziaren zati proportzionalari bakarrik.”

Bi. 56 bis artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoa eta a) eta b) letrak aldatzen dira, eta honela gelditzen dira:

“1. Espainiako lurraldera lekualdatzearen ondorioz zerga egoitza Araban ezartzen duten pertsona fisikoek artikulua honetan ezartzen den araubide bereziaren arabera ordaindu ahal izango dute zerga bizileku aldaketa gertatzen den zergaldian eta ondoko hamar zergaldietan, baldin eta betekizun hauek betetzen badira arau bidez ezartzen den bezala:

a) Espainiako lurraldera lekualdatzearen helburua kualifikazio bereziko lanak egitea izatea, hain zuzen ere, zuzenean eta nagusiki arlo hauetako jarduerekin lotutakoak: ikerketa eta garapena, zientzia, teknika, finantzak eta merkataritza.

b) Espainiako lurraldera lekualdatzearen ondorioz zerga egoitza eskuratzen duten zergaldien aurreko bost urteetan zerga egoitza Espainian ez edukitzea. Edonola ere, ezinbestekoa da aurretik atzerrian bizi izana gutxienez bost urtez, datatik datara zenbatuta.”

Hiru. 56 bis artikulua 2. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“a) Salbuetsita dago aurreko 1. apartatua zehazten den lan harremanaren ondoriozko etekin osoen ehuneko 30.”

Lau. 90. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“90. artikulua. Kenkaria, mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertain sortu berrietan, berritzailetan edo zilarrezko ekonomiari lotutakoetan inbertitzeagatik.

1. Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera mikroenpresatzat edo enpresa txiki edo ertaintzat jotzen diren enpresa sortu berri edo duela gutxi sortutako akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik edo eskuratzegatik dagokion zergaldian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 25eko kenkaria aplikatu ahal izango dute zergadunek hurrengo 4. apartatua xedatutako betetzen bada. Kapitalari aldi baterako ekarpena egiteaz gainera, inbertitzen duten entitatea garatzeko enpresa edo lanbide ezagutza egokiak ere jarri ahal izango dituzte, zergadunaren eta entitatearen arteko inbertsio akordioan ezartzen denari jarraituz.

Kenkari hori aplikatzeko, enpresak baliabide pertsonalak eta materialak eduki behar ditu jarduera ekonomiko berria egiteko. Ez da baldintza hori betetzat joko honako eragiketa hauen ondorioz sortutako sozietateak badira: bat egitea, banantzea, aktiboen ekarpena, aktiboaren eta pasiboaren lagapen globala, jarduera adarren ekarpenak, interes ekonomikoko taldeak egitea, aldi baterako enpresa elkarteak eta jarduera ekonomiko berria sortzea benetan ez dakarten bestelako eragiketak.

Entitate batean akzioak edo partaidetzak harpidetzeak edo eskuratzeak ez du kenkari hau aplikatzeko eskubiderik emango, baldin eta lehendik beste titulartasun baten bidez gauzatzen zen jarduera bera egiten bada entitate horren bidez.

2. Aurreko apartatuan ezartzen den kenkaria delako epealdian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 35 izango da, enpresa berritzaileen edo xede soziala zilarrezko ekonomiarekin zuzenean lotuta daukaten enpresen akzioak edo partaidetzak harpidetzeko edo eskuratzeko direnean, baldin eta mikroenpresatzat, enpresa txikitzat edo ertaintzat jotzen badira Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 13. artikuluan xedatzen duenaren arabera, hurrengo 4. apartatuan xedatutakoa betetzen denean.

Apartatu honetan xedatzen denaren ondorioetarako:

a) Enpresa berritzailetzat joko dira partaidetza hartzen den urtean Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduko (EB) 2. artikulua 80 apartatuan xedatutakoa betetzen dutenak; erregelamendu horren bidez, laguntza kategoriatzuk barne merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua betez.

b) Zilarrezko ekonomiatzat jotzen da adineko pertsonen sektoreak eskatutako eta egindako jardueren eragin ekonomikoaren eta sozialaren ondoriozko aukera sorta. Entitate baten xede soziala sektore horri zuzenean lotuta dagoela ondorioztatzeko betekizunak eta baldintzak arau bidez zehaztuko dira.

3. Artikulu honen aurreko apartatuetan aipatzen den kenkariaren oinarria zergaldiaren barruan eskuratu edo harpidetutako akzioen edo partaidetzen eskuratze balioa izango da. Entitatearen kapitalean ehuneko 25etik gorako partaidetza duten akzioen edo partaidetzen eskuratze balioa ezin izango da zenbatu haren barruan, honako hau kontuan hartuz: zergadunak eta zergadunari lotutako pertsonak edo entitateak dituzten akzio edo partaidetza guztiak, Sozietateen Gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 42.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

Aurreko paragrafoan aipatzen den ehunekoa kalkulatzeko, zergadunaren partaidetza zuzena edo zeharkakoa hartuko da kontuan, haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak edo zergadunarekin ahaidetasun lotura zuzena edo albokoa, odol ahaidetasuna edo ezkontza ahaidetasuna (bigarren gradurainokoa) duen edozein pertsonak entitate berean duen partaidetzarekin batera.

4. Aurreko apartatuetan zehaztutako kenkariak aplikatzeko:

a) Kenkaria aplikatzea eragiten duten akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo harpidetzen dituen entitatea sozietate anonimoa, erantzukizun mugatuko sozietatea, kooperatiba, lan sozietate anonimoa edo erantzukizun mugatuko lan sozietatea izan behar da, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta Lan-sozietateei eta partaidetutako sozietateei buruzko urriaren 14ko 44/2015 Legean ezartzen den bezala. Gainera, ezin da egon onartuta negoziatzeko merkatu antolatua batean.

Baldintza hori ekintza edo partaidetza izan den urte guztietan bete beharko da eta, halaber, betetzat joko da atzerrian egoitza duten entitateen akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo harpidetzen direnean, baldin eta a) letra honetan ezarritako antzeko izaera juridikoa badute.

b) Entitatearen akzioak edo partaidetzak entitatea eratzen denean eskuratu behar ditu zergadunak, edo, bestela, eratu ondoko bost urteetan egindako kapital zabalkuntza baten bidez. Zergadunak bost urte baino gehiagoz eduki behar ditu akzioak edo partaidetzak bere ondarean.

Artikulu honen 2. apartatuaren a) letran aipatzen den kasuan, akzioak edo partaidetzak eskuratu beharko dira entitatea eratu ondoko zazpi urteetan. Hala ere, epealdi hori ez da exijigarria izango honako kasu honetan: erakundeen aurreko bost urteetako urteko eragiketen bolumenaren batez bestekoaren ehuneko 50etik gorako arriskuko finantzazioaren hasierako inbertsioa behar badute merkatu geografiko berrian edo produktuen merkatu berrian sartzeari begira egindako negozio plan batean oinarrituz.

5. Artikulu honetan aipatzen diren kenkari kontzeptuak ez zaizkie aplikatuko honako kasu hauetako batean dauden entitateetan egiten diren inbertsioei:

a) Berreskuratze agindu baten mende dauden enpresak, Europako Batzordeak erabaki baten bidez laguntza bat legez kanpokoa eta barne merkatuarekin bateraezina dela adierazi ondoren.

b) Krisian dauden enpresak, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 18. apartatuan xedatutakoaren arabera. Erregelamendu horren bidez laguntza kategoriatzat barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz.

c) Artikulu honen 1. eta 2. apartatuetan aipatzen diren akzioak edo partaidetzak jaulkitzeagatik aurreko letran adierazitako erregelamenduaren 21. artikuluko 9. apartatuan aipatzen diren arriskuko finantzaketaren zenbateko osoa gainditu duten edo gaindituko duten enpresak.

6. Kenkari honen kontzeptuak aplikatzeko, akzioak edo partaidetzak harpidetu edo eskuratu diren entitateak ziurtagiri bat eman beharko du, adierazten duena akzioak edo partaidetzak eskuratu diren zergaldian bidezko kenkaria aplikatzeko eskubidearen betekizunak bete direla.

Horrez gain, 2. apartatuaren a) letran arautzen den kasuan, aurreko apartatuaren b) eta c) letratan aipatzen diren erregelamenduaren 2. artikuluko 80. apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu entitateak.

7. Zergaldian aplikatu ahal den gehieneko kenkaria ezin da izan zergadunaren likidazio oinarriaren ehuneko 20 baino gehiago. Funts berek ez dute emango pertsona edo entitate batek baino gehiagok kenkaria aplikatzeko eskubidea.

Ezarritako mugak gainditzen direlako kendu gabe geratzen diren zenbatekoak hurrengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira, muga berberak errespetatuz.

8. Aurreko 1-7 artetako apartatuetan aipatzen diren baldintzak betetzen ez badira, zergadunak kenkariaren ondoriozko kuota eta bidezko berandutze interesak sartu beharko ditu ez-betetzea gertatu den zergaldiaren aitorpenean”.

2. artikulua. Sozietateen gaineko zerga

Honako aldaketa hauek egiten dira Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan (2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 14. artikuluko 2. apartatuaren b) letra aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“b) Ez dira konputatuko baloretzat ez jarduera ekonomikoei atxiki gabeko elementutzat eskuratze prezioa entitateak lortutako mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino handiagoa ez dutenak, baldin eta mozkin horiek jarduera ekonomikoak eginez lortu badira, muga honekin: urte berean nahiz aurreko azken hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoa (kontabilitateko emaitza positiboak eta negatiboak beren artean konputatu eta integratuta).

Banatu gabeko mozkinak erreserba modura agertu behar dira entitatearen balantzean.

Horretarako, jarduera ekonomikoen mozkinekin parekatzen dira apartatu honen a) letraren azken puntuaz azaltzen diren baloreen dibidenduak, bai eta partaidetzak eskualdatuta lortutako gainbalioak ere, baldin eta partaidetutako entitateak lortutako sarreren ehuneko 80 gutxienez jarduera ekonomikoen ondoriozkoak badira.

Era berean, ez dira jarduera ekonomikoei lotu gabeko balore edo elementu gisa zenbaituko zergadunak mikroenpresa, enpresa txiki edo ertain sortu berrietan edo berrikuntzaren arlokoetan edo zilarrezko ekonomiarekin lotutakoetan inbertitzeagatik ezarritako ezohiko kenkaria aplikatzeko foru arau honen 66 bis artikuluan arautzen diren baldintzak betetzen dituzten entitateetako akzio eta partaidetzak. Ondorio horietarako ez dira kontuan edukiko aipatutako manuairen 3. apartatuan xedatzen dena.

Era berean, aurreko paragrafoan xedatzen dena akzio edo partaidetzen balioaren zati bati ere aplikatuko zaio, hain zuzen ere, partaidetza beste entitate baten edo batzuen bidez eskuratu badu, zergadunak mikroenpresa, enpresa txiki edo ertain sortu berrietan edo berrikuntzaren arlokoetan edo zilarrezko ekonomiarekin lotutakoetan inbertitzeagatik ezohiko kenkaria aplikatzeko foru arau honen 66 bis artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen dituen akzioei edo partaidetzei dagokien zatia. Ondorio horietarako ez da kontuan edukiko manuairen 3. apartatuan xedatzen dena.

Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoa aplikatzeko, zergadunak foru arau honen 66 bis artikuluan 6. apartatuan aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.”

Bi. 34. artikuluan 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Ez dira zergadunaren zerga oinarrian sartuko entitateen kapitalaren edo funts propioen adierazgarri diren baloreak eskualdatuz lortutako errenta positiboak, baldin eta aurreko artikuluko 1. apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen badira partaidetza horrek dirauen ekitaldi guztietan, a) letran aipatutako kasuan izan ezik (kasu horretan eskualdaketa egiten den egunean bete behar da baldintza).

Hala ere, artikuluko honetan xedatzen dena aplikatuko da, partaidetzaren ehunekoia edozein dela ere, entitate zergadunak foru arau honen 66 bis artikuluan ezartzen den kenkaria aplikatu ahal duen entitateetako akzioak eta partaidetzak eskualdatzen diren kasuetan. Ondorio horietarako ez da kontuan hartuko aipatutako manuairen 3. apartatuan xedatzen dena.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, zergadunak foru arau honen 66 bis artikuluan 6. apartatuan aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.”

Hiru. 66. artikuluan 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Zergaldian zehar lan kontratu mugagabea egiten zaion pertsona bakoitzeko hurrengo paragrafoan ezarritako zenbatekoa kendu ahal izango da kuota likidotik, baldin eta pertsona horren soldata kontratazioaren unean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata baino ehuneko 70 handiagoa bada, gutxienez.

Aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 7.000 eurokoa izango da kontratatutako pertsona bakoitzeko.

Dena dela, zenbateko kengarria aurretik adierazitakoaren arabera kengarri denaren bikoitza izango da, kontratatzen den pertsona, arau ezarritakoaren arabera, laneratzeko zailtasun beziak dituenetakoa bada.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, kenkariaren zenbatekoa langilearen lanaldiaren proportziozkoa izango da, lanaldi osoa erreferentzia hartuta.”

Lau. 66. artikuluko 2. apartatuari azken paragrafoa gehitzen zaio, honela dioena:

“Artikulu honetan araututako kenkaria aplikatzeko, beharrezkoa izango da entitatearen administratzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea, esaten duena entitate horrek betetzen duela, eta kontratazioa egiten den zergaldia amaitu eta hurrengo hiru urteetan bukatzen diren zergaldietan beteko duela, balio bereko lana egiteagatik lansari berdina ordaintzeko egin beharra, zuzenean nahiz zeharka ordaindua, berdin du zein den haren izaera, soldata nahiz soldataz kanpokoa, ezingo delarik sexuagatik inolako bereizkeriarik egin lansariaren ezein elementu edo baldintzatan.”

Bost. 66 bis artikulua gehitzen da; hona:

“66 bis artikulua. Kenkaria, mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertain sortu berrietan, berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiari lotutakoetan inbertitzeagatik.

1. Kuota likidotik kendu ahal izango da foru arau honen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera mikroenpresa, enpresa txiki edo ertaintzat jotzen diren enpresa sortu berri edo duela gutxi sortuetakoa akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik edo eskuratzeagatik dagokion zergaldian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 25. Kapitalari aldi baterako ekarpena egiteaz gainera, inbertitzen duten entitatea garatzeko egokiak diren enpresa edo lanbide ezagutzak ere jarri ahal izango dituzte, zergadunaren eta entitatearen arteko inbertsioaren gaineko akordioan ezartzen denari jarraituz.

Kenkari hori aplikatzeko, enpresak baliabide pertsonalak eta materialak eduki behar ditu jarduera ekonomiko berria egiteko. Ez da baldintza hori betetzat joko honako eragiketa hauen ondorioz sortutako sozietateak badira: bat egitea, banantzea, aktiboen ekarpena, aktiboaren eta pasiboaren lagapen globala, jarduera adarren ekarpenak, interes ekonomikoko taldeak egitea, aldi baterako enpresa elkarrekin eta jarduera ekonomiko berria sortzea benetan ez dakarten bestelako eragiketak.

Entitate batean akzioak edo partaidetzak harpidetzeak edo eskuratzeak ez du kenkari hau aplikatzeko eskubiderik emango, baldin eta lehendik beste titulartasun baten bidez gauzatzen zen jarduera bera egiten bada entitate horren bidez.

2. Aurreko apartatuan ezartzen den kenkaria dagokion zergaldian ordaindutako zenbatekoen ehuneko 35 izango da, enpresa berritzaileen akzioak edo partaidetzak harpidetzeko edo eskuratzeko direnean, edo xede soziala zilarrezko ekonomiari zuzenean lotuta duten enpresetan, baldin eta mikroenpresatzat, enpresa txikitzat edo ertaintzat jotzen badira foru arau honen 13. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Apartatu honetan xedatzen denaren ondorioetarako:

a) Enpresa berritzaileztat joko dira partaidetza hartzen den urtean Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduko (EB) 2. artikulua 80. apartatuan xedatutakoa betetzen dutenak; erregelamendu horren bidez, laguntza kategoriatan batzuk barne merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua betez.

b) Zilarrezko ekonomiatzat jotzen da adineko pertsonen sektoreak eskatutako eta egindako jardueren eragin ekonomikoaren eta sozialaren ondoriozko aukera sorta. Entitate baten xede soziala sektore horri zuzenean lotuta dagoela ondorioztatzeko betekizunak eta baldintzak arau bidez zehaztuko dira.

3. Artikulu honen aurreko apartatuetan aipatzen den kenkariaren oinarria zergaldiaren barruan eskuratu edo harpidetutako akzioen edo partaidetzen eskuratze balioa izango da. Entitatearen kapitalean ehuneko 25etik gorako partaidetza duten akzioen edo partaidetzen eskuratze balioa ezin izango da zenbatu haren barruan, honako hau kontuan hartuz: zergadunak eta zergadunari lotutako pertsonak edo entitateak dituzten akzio edo partaidetza guztiak, foru arau honek 42.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

4. Aurreko apartatuetan ezartzen diren kenkari kontzeptuak aplikatzeko:

a) Kenkaria aplikatzea eragiten duten akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo harpidetzen dituen entitatea sozietate anonimoa, erantzukizun mugatuko sozietatea, kooperatiba, lan sozietate anonimoa edo erantzukizun mugatuko lan sozietatea izan behar da, Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean (uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) eta Lan-sozietateei eta partaidetutako sozietateei buruzko urriaren 14ko 44/2015 Legean ezartzen den bezala. Gainera, ezin da egon onartuta negoziatzeko merkatu antolatuan batean.

Baldintza hori ekintza edo partaidetza izan den urte guztietan bete beharko da eta, halaber, betetzat joko da atzerrian egoitza duten entitateen akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo harpidetzen direnean, baldin eta a) letra honetan ezarritako antzeko izaera juridikoa badute.

b) Entitatearen akzioak edo partaidetzak hura eratzen denean eskuratu behar ditu zergadunak, edo, bestela, eraketaren ondoko bost urteetan egiten den kapital zabalkuntza baten bidez edo bigarren mailako merkatu batean. Zergadunak bost urte baino gehiagoz eduki behar ditu akzioak edo partaidetzak bere ondarean.

Artikulu honen 2. apartatuaren a) letran aipatzen den kasuan, akzioak edo partaidetzak eskuratu beharko dira entitatea eratu ondoko zazpi urteetan. Hala ere, epealdi hori ez da exijigarria izango honako kasu honetan: aurreko bost urteetako urteko eragiketen bolumenaren batez bestekoaren ehuneko 50etik gorako arriskuko finantziazioaren hasierako inbertsioa behar badute merkatu geografiko berrian edo produktuen merkatu berrian sartzeari begira egindako negozio plan batean oinarrituz.

5. Kenkari hau ez zaie aplikatuko honako kasu hauetako batean dauden entitateetan egiten diren inbertsioei:

a) Berreskuratze agindu baten mende dauden enpresak, Europako Batzordeak erabaki baten bidez laguntza bat legez kanpokoa eta barne merkatuarekin bateraezina dela adierazi ondoren.

b) Krisian dauden enpresak, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 18. apartatuan xedatutakoaren arabera. Erregelamendu horren bidez laguntza kategoriatzat barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

c) Artikulu honen 1. eta 2. apartatuetan aipatzen diren akzioak edo partaidetzak jaulkitzeagatik aurreko letran adierazitako erregelamenduaren 21.9 artikuluan aipatzen diren arriskuko finantzaketaren zenbateko osoa gainditu duten edo gaindituko duten enpresak.

6. Artikulu honetan aipatzen diren kenkari kontzeptuak aplikatzeko, akzioak edo partaidetzak harpidetu edo eskuratu diren entitateak ziurtagiri bat eman beharko du, adierazten duena akzioak edo partaidetzak eskuratu diren zergaldian bidezko kenkaria aplikatzeko eskubidearen betekizunak bete direla.

Horrez gain, 2. apartatuaren a) letran arautzen den kasuan, aurreko apartatuaren b) eta c) letratan aipatzen diren erregelamenduaren 2. artikuluan 80. apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu entitateak.

7. Foru arau honen 67. artikuluan 6. apartatuan xedatzen denaren arabera, funts batzuek ezin izango dute sortu pertsona edo entitate batek baino gehiagok kenkaria aplikatzeko eskubidea.

8. Aurreko 1-7 artetako apartatuetan aipatzen diren baldintzak betetzen ez badira, entitateak kenkariaren ondoriozko kuota eta bidezko berandutze interesak sartu beharko ditu baldintzak betetzen ez diren zergaldiko autolikidazioan."

3. artikulua. Ondarearen gaineko zerga

Lehenengoa. Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Aruaren 19. artikulua aldatu eta aurrerantzean honela idatzita egongo da (aldaketak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak):

"19. artikulua. Bizitza aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak.

Bat. Bizitza aseguruaren balioztat, zerga sortzen denean haiek duten erreskate balioa hartuko da.

Hala ere, hartzaileak ez badauka ahalmenik zergaren sortzapen datan osorik erreskatatzeko eskubideaz baliatzeko, aseguruaren balioztat data horretako hornidura matematikoaren balioa hartuko da hartzailearen zerga oinarrian.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aldi baterako aseguru kontratuei heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioak edo bestelako arrisku berme osagarriak bakarrik jasotzen badituzte.

Bi. Aldi baterako errentak edo biziarteko errentak, kapitala dirutan, ondasun higigarritan edo higiezinetan ematearen ondorioz sortu direnean, zerga sortzen den egunean duten kapitalizazio balioaren arabera zenbatu behar dira, pentsioak eratzeko ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen zergan adierazi diren arau berak aplikatuz.

Hala ere, bizitza aseguru batetik aldi baterako nahiz biziarteko errentak jasotzen direnean, artikuluko honetako Bat apartatuan ezarritako balioa hartuko da haien balioztat.

Bigarrena. Ondarearen gaineko Zergaren martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak):

Bat. 5. artikuluko hamabost zenbakia aldatu eta aurrerantzean honela idatzita egongo da:

“Hamabost. Zergadunari Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluan ezartzen den kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dioten entitateen akzioak eta partaidetzak, ondorio hauetarako artikuluko horren 3. eta 7. apartatuetan xedatzen dena kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko, zergadunak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluko 6. apartatuan aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.”

Bi. 6. artikuluko lau apartatuaren bukaeran bi paragrafo gehitzen dira, honela diotenak:

“Ez dira konputatuko jarduera ekonomiko bat egiteko behargabeko aktibotzat, eskuraketa prezioa erakundeak lortutako mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino handiagoa ez dutenak, baldin eta mozkin horiek jarduera ekonomikoak eginez lortu badira, muga honekin: urte berean nahiz aurreko azken hamar urteetan lortutako mozkinen zenbatekoa. Paragrafo honetan xedatutakoa aplikatuz behargabeko aktibotzat konputatzen ez diren elementuek ezin daitezke izan aktiboaren guztirako zenbatekoaren ehuneko 75 baino gehiago.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera ekonomikoaren mozkinekin parekatzen dira Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 14. artikuluko 2. apartatuko a) letrako azken bi paragrafoetan azaltzen diren baloreen dibidenduak, bai eta partaidetza horien eskualdatzeetan lortutako gainbalioak ere, baldin eta partaidetzapeko entitateak lortutako sarreraren ehuneko 80 gutxienez jarduera ekonomikoaren ondoriozkoak badira.”

4. artikulua. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren 9. artikuluko d) letra gehitzen zaio, honela idatzita egongo dena (2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak):

“d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluan ezartzen den kenkaria aplikatu ahal izan zaien entitateen akzioen edo partaidetzen jaraunspen bidez edo beste edozein oinordetza tituluren bidez eskuratzea, ondorio horietarako artikuluko horren 3. eta 7. apartatuetan xedatzen dena kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko, zergadunak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluko 6. apartatuan aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.

II. TITULUA. TICKETBAI APLIKATZEA SUSTATZEKO NEURRIAK

5. artikulua. TicketBAI erabili beharra betetzea sustatzeko kenkaria aldatzea

Tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauaren xedapen gehigarri bakarria aldatzen da (aldaketak 2021eko maiatzaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak); hona testu berria:

“Xedapen gehigarri bakarria. Kenkaria TicketBAI erabili beharra betetzea sustatzeko.

1. Ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema erabiltzea sustatzeko kenkaria (Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren hogeita seigarren xedapen gehigarrian ezartzen dena), aplikatzeko betebeharra duten sozietateen gaineko zergaren zergadunek TicketBAI ezarritako nahitaezko data baino lehen erabiltzen badute 2022ko urtarrilaren 1az geroztik, hain zuzen ere, nahitaez erabiltzen hasi beharra sortu baino hilabete lehenago gutxienez; kenkari hori honako berezitasun hauekin aplikatu ahal izango dute, berari buruz ezartzen denarekin bat etorritik eta beraren baldintzak beteta:

a) Aurrean aipatutako hogeita seigarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuaren lehen paragrafoan aipatzen den kenkariaren oinarria bertan aipatzen diren inbertsioen eta gastuen batura izango da, hain zuzen ere, TicketBai nahitaezko data baino lehen erabiltzen hasi aurretik egindako inbertsioen eta gastuen batura.

b) Hogeita seigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan aipatzen den kenkari ehunekoa honako hau izango da: ehuneko 60.

c) Hogeita seigarren xedapen gehigarriaren 2.b) apartatuan aipatzen den 500 euroko kopurua 1.500 eurokoa izango da.

2. Kenkari hau aplikatu ahal izateko, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, zergadunak nahitaez hasi behar dira TicketBAI erabiltzen horren ezarpenaren egutegia arautzen duen foru dekretuaren arabera nahitaez erabiltzen hasi beharra sortu baino hilabete lehenago gutxienez, eta erabiltzen jarraitu behar dute egutegiaren arabera manuzkoa den artean.

3. Xedapen gehigarri honetan ezartzen den kenkaria aplikatzen duten zergadunek ezin izango dute aplikatu aurrean aipatutako hogeita seigarren xedapen gehigarrian arautzen den kenkaria gastu eta inbertsio beren arabera.

4. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria dela-eta aurreko 1. apartatuan aipatzen den hogeita seigarren xedapen gehigarrian ezartzen den kenkaria aplikatzeko eskubidea duten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek kenkari hori aurreko apartatuetan ezartzen diren berezitasunekin aplikatu ahal izango dituzte, haietan ezartzen diren baldintzak betez gero.

Honen ondorioetarako, aurreko 3. apartatuan hogeita seigarren xedapen gehigarria aipatzen denean, aipamena aurreko paragrafoan aipatzen den hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriari dagokiola ulertu behar da”

III. TITULUA. BESTE ZERGA NEURRI BATZUK

6. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 2. artikuluari 3. zenbakia gehitzen zaio; hona:

“3. Foru arau honetan (batez ere 56. eta 113 bis artikuluetan) ezartzen diren informazio betebeharren arabera behartuta dauden errentak esleitzeko araubideko entitateei”

Bi. 9. artikulua 5. zenbakiaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“5. Langileak irazteagatik edo lana utzarazteagatik jasotzen dituen kalte ordainak, hain zuzen ere Langileen Estatutuan, hura garatzen duen araudian edo, bestela, epaiak betearazteko araudian ezarritako nahitaezko kopurua. Ezin dira hartu halakotzat hitzarmena, ituna edo kontratua dela bide ezarritakoak. Era berean, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 30. artikulua 2. paragrafoa aplikatuz, bazkide langileak edo lan bazkideak kooperatiban baja hartzean jasotzen dituen kalte ordainak salbuetsita egongo dira, Langileen Estatutuaren 52. artikulua c) letran lana uzteko lan araudiak nahitaezko zat ezarritako zenbateko berean”.

Hiru. 9. artikulua 12. zenbakiko b) letra aldatzen da; hona hemen haren edukia:

“b) Adingabearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko prestazioak eta bularreko haurren zaintza eta erantzunkidetasunagatiko prestazioak, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren II. tituluko VI. eta VII. kapituluetan araututakoak, hurrenez hurren, Gizarte Segurantzaren araubide publikoetatik jasotakoak, eta funtzionarioei dagozkien araubide publikoetatik jasotzen diren prestazio berdinak.

Halaber, salbuetsita egongo dira zerbitzuak ematen dituzten organo edo erakundeko funtzionarioek jasotako ordainsariak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateginaren 48. artikulua f) letran onartutako edoskitzeagatiko baimenari dagozkionak. Salbuetsitako zenbatekoak muga hau izango du: urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren testu bateginaren II. tituluko VII. kapituluaren aurreikusitako bularreko haurren zaintzaren ekitaldi erantzunkideko prestazio ekonomikoagatik Gizarte Segurantzak aitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa”.

Lau. 9. artikulua 24. apartatuaren bigarren paragrafoa honela gelditzen da:

“Salbuespen hau ez zaie aplikatuko talde inbertsioko entitateek banatzen dituzten dibidenduei eta mozkiniei, ez eta baloreen eta partaidetzen ondoriozkoei ere, baldin eta dibidenduak ordaindu aurreko bi hiletan eskuratu badira eta ondoko bi hiletan balore homogeenak eskualdatu badira. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean finantza tresnen merkatuek emandako 2014/65/EB Zuzentarauan azaldutako bigarren mailako balore merkatu ofizialetan negoziatzeko onartzen ez diren balore eta partaidetzen kasuan, epealdia urtebetekoa izango da”.

Bost. 34. artikulua e) letraren lehen eta bigarren paragrafoak honela gelditzen dira:

“e) Akzio edo partaidetzen jaulkipen primaren banaketa. Lortutako zenbatekoak akzio edo partaidetza bakoitzaren eskuratze balioa murriztuko du, deuseztatu arte. Gaindikirik badago, kopuru hori kapital higigarriaren etekin gisa zergapetuko da.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, sozietate edo entitateko funts propioen partaidetzaren ordezkari eta finantza tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako baloreen merkatu arautuetan negoziatziorako onartu gabeko baloreei dagozkien jaulkipen primak banatuz gero, prima banatzeko data aurretik itxitako azken ekitaldiari dagozkion partaidetza edo akzioen funts propioen balioaren eta eskuratze balioaren arteko diferentzia positiboa baldin bada, lortutako zenbatekoa edo jasotako eskubide edo ondasunen merkatuko balio normala kapital higigarriaren etekin gisa hartuko da, diferentzia positiboaren mugarekin”.

Sei. 41. artikulua 1. apartatuari azken paragrafoa gehitzen zaio; hona:

“Nolanahi ere, ondarearen osaeran aldaketak egon direla ulertuko da, baldin eta alderdie-tako batek bere buruari ondasunak edo eskubideak esleitzen badizkio, alde aurreko partaidetza kuotari dagokiona baino balio handiagoarekin, besteari edo beste batzuei konpentsazioa eman ez, edo inolako konpentsaziorik ordaindu gabe. Horrelako kasuetan, soberan jasotako ondasunen edo eskubideen balioak eguneratu beharko dira”.

Zazpi. 41. artikulua 2. apartatuaren a) letraren hirugarren paragrafoa honela gelditzen da:

“Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, kapitala murrizten bada ekarpenak itzultzeko, eta ez bada sozietate edo entitateko funts propioen partaidetzaren ordezkari eta finantza tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako baloreen merkatu arautuetan negoziatzeko onartu gabeko baloreei dagozkien banatu gabeko mozkinen ondoriozkoa, kapital murrizketa egin aurretik itxitako azken ekitaldiari dagozkion partaidetza edo akzioen funts propioen balioaren eta eskuratze balioaren arteko diferentzia positiboa bada, lortutako zenbatekoa edo jasotako eskubide edo ondasunen merkatuko balio normala kapital higigarriaren etekin gisa hartuko da, diferentzia positiboaren mugarekin”

Zortzi. 43. artikulua g) eta h) letrak honela gelditzen dira:

“g) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean finantza tresnen merkatuei emandako 2014/65/EB Zuzentarauan azaldutako bigarren mailako balore merkatu ofizialeko batean negoziatzeko onartutako balore edo partaidetzen eskualdaketen ondoriozkoak, baldin eta zergadunak balore homogeenak eskuratu baditu eskualdaketa gertatu aurreko edo ondoko bi hiletan”

“h) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean finantza tresnen merkatuei emandako 2014/65/EB Zuzentarauan azaldutako bigarren mailako balore merkatu ofizialean negoziatzeko onartu ez diren balore edo partaidetzen eskualdaketen ondoriozkoak, baldin eta zergadunak balore homogeenak eskuratu baditu eskualdaketa gertatu aurreko edo ondoko urtean”

Bederatzi. 47. artikulua 1. apartatuaren a) eta b) letren lehen paragrafoak eta d) letraren bigarren paragrafoaren bigarren puntua honela gelditzen dira:

“a) Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren finantza tresnen merkatuei buruzko 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako merkatuetako batean negoziatzeko onartu eta sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetza ordezkatzeko duten baloreen kostu bidezko eskualdaketek eragin badute, irabazia edo galera beren eskuraketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentzia izango da; eskualdaketa balioa merkatu horietan gertatzen denean daukan kotizazioa izango da, edo bestela itundutako prezioa, hura baino gehiago bada”

“b) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2014ko maiatzaren 15ean finantza tresnen merkatuei emandako 2014/65/EB Zuzentarauan azaldutako balore merkatuetan negoziatzeko onartu ez diren baloreak, sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetzaren ordezkari direnak, kostu bidez eskualdatuz gero, ondare irabazia edo ondare galera eskuraketa balioaren era eskualdaketa balioaren arteko diferentzia da”

“- 2014ko maiatzaren 15ean finantza tresnen merkatuei emandako 2014/65/EB Zuzentarauan azaldutako bigarren mailako balore merkatuetako eta, bereziki, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Balore Merkatuei buruzko Legearen testu bateginako 43. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera baimendutako balore negozioko sistemetakotizazio balioa, eskualdaketa egunekoak”

Hamar. 63. artikulua b) letra aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

“b) Foru arau honen 34., 35. eta 36. artikuluetan ezartzen diren kapital higigarriaren etekinak. Hala ere, erregelamendu bidez ezartzen diren kasuetan izan ezik, 35. artikuluan arautzen diren kapital higigarriaren etekinak, zergadunarekin lotutako entitateetatik datozenak, errenta orokorraren parte izango dira, Sozietateen Gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikulua eta foru arau honen 54. artikulua hirugarren paragrafoan ezartzen den bezala”

Hamaika. 73. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“73. artikulua. Zerga batera ordaintzeagatik aplikatzen den murrizketa.

1. Foru arau honen 98. artikuluan xedatutakoaren arabera zerga batera ordaintzea hautatuz gero, urteko autolikidazioaren zerga oinarri orokorretik 4.413 euro ken daitezke.

2. Aurreko apartatuko murrizketa 3.833 eurokoa izango da foru arau honen 98. artikulua 2. apartatuan aipatzen diren familia unitateen autolikidazioan.”

Hamabi. 75. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

“1. Likidazio oinarri orokorra ondoko eskalan agertzen diren tasekin kargatuko da:

LIKIDAZIO OINARRI OROKORRA, GEHIENEZ (EUROAK)	KUOTA OSOA (EUROAK)	LIKIDAZIO OINARRIA, GAINERAKOA, GEHIENEZ (EUROAK)	TASA (EHUNEKOA)
0,00	0,00	16.280,00	23,00
16.280,00	3.744,40	16.280,00	28,00
32.560,00	8.302,80	16.280,00	35,00
48.840,00	14.000,80	20.910,00	40,00
69.750,00	22.364,80	26.860,00	45,00
96.610,00	34.451,80	32.180,00	46,00
128.790,00	49.254,60	58.980,00	47,00
187.770,00	76.975,20	Hortik gora	49,00

Hamahiru. Honako aldaketa hau sartzen da 77. artikuluan:

1.432 euroren ordean, 1.454 euro jartzen da.

Hamalau. 79. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

“1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko kenkari hau aplikatu daiteke:

a) 613 euro urtean lehenengoagatik.

b) 759 euro urtean bigarrenagatik.

c) 1.280 euro urtean hirugarrenagatik.

d) 1.513 euro urtean laugarrenagatik.

e) 1.976 euro urte bosgarrenarengatik edo hurrengo ondorengoengatik.

2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo bakoitzeko beste 353 euro kenduko dira urtean, aurreko zenbakiaren arabera kenkaria aplikatzeaz gainera.

Zergadunarekin bizi den sei urtetik hamasei urtera bitarteko ondorengo bakoitzeko aurreko apartatuaren arabera kenkaria aplikatzeaz gainera beste 55 euro kendu daitezke urtean. Kenkari hau ezin da bateratu aurreko paragrafoan ezarritakoarekin.”

Hamabost. 81. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

“1. Egutegiko urte osoan zergadunarekin etengabe bizi den aurreko bakoitzeko 294 euro kendu ahal izango dira.

Kenkari hori aplikatzeko, aurreko paragrafoan deskribatutako bizikidetzarekin parekatuko da kasu hau: ondorengo ahaideak bere ondorearen kontura diru kopuruak ordaintzen badizkie gizarte zerbitzuen foru sarearen edo parekatuaren barruan ez dauden eta aurreko ahaidea egutegiko urte osoan etengabe bizi den egoitzei.”

Hamasei. Beste artikulua bat eransten da, 81 bis; hona testua:

“81 bis artikulua. Kenkaria laguntzaile pertsonala kontratatzeagatik mendekotasun gradu jakina edo desgaitasuna daukan pertsona baten arretarako.

1. Zerga sortzen den egunean titular diren zergadunek 39/2014 Foru Dekretuan (abuztuaren 1ekoa, Araban autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko sistemaren prestazio ekonomikoak arautzen dituen) arautzen den laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoa jasotzen badute eta araudi horretan eta hura garatzen duten arauetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte, kenkaria aplikatzeko eskubidea izango dute laguntzaile pertsonalak kontratatzen dituztenean. Kenkaria honako hau izango da, mendekotasun egoeraren edo desgaitasunaren arabera eta hirugarren baten laguntzaren beharraren arabera:

MENDEKOTASUNAREN EDO DESGAITASUNAREN GRADUA ETA HIRUGARREN BATEN LAGUNTZA BEHAR IZATEA	KENKARIA (EUROAK)
Ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa. Mendekotasun ertaina (I. gradua)	300
Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 15 - 39 puntu besteren laguntza behar izateagatik. Mendekotasun larria (II. gradua)	500
Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 40 puntu edo gehiago besteren laguntza behar izateagatik. Mendekotasun handia (III. gradua)	1.000

2. Aurreko 1. apartatuan aipatzen den kenkaria haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak egin dezake. Hala eginez gero, beharrezkoa izango da ezkontidea edo izatezko bikotekidea mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonarekin bizi izatea urte natural osoan, etenik gabe.

3. Urte natural osoan, etenik gabe, mendekotasuna edo desgaitasuna duen pertsonarekin bizi diren laugarren gradura arteko ahaide guztiek aplikatu ahal izango dute aurreko 1. apartatuan aipatzen den kenkaria.

Baldin eta mendekotasuna duen pertsona batekin ezkontidea edo izatezko bikotekidea eta aurreko paragrafoan aipatzen diren ahaideetako bat bizi badira, kenkaria ezkontideak edo izatezko bikotekideak baino ezin dezake aplikatu. Salbuespena: zergaldian ezkontideak edo izatezko bikotekideak eduki dituen errentak (salbuetsiak ez beste guztiak) ez badira lanbidearteko gutxieneko soldata halako bi baino gehiago, kenkaria ahaide horrek/horiek aplikatu ahal izango du(te), kenkari hau aplikatzeko ezarrita dauden gainerako baldintzak betetzen badira.

4. Kenkari hau aplikatzeko, lehentasuna izango du aurreko 1. apartatuan aipatzen den zergadunak. Hark ez badu aplikatzen, kenkaria aurreko 2. apartatuan aipatzen den ezkontide edo izatezko bikotekidearengana pasatuko da. Aipatu berri diren pertsonak (adierazitako hurrenkeran) ez badute egiten kenkaria, edo 3. apartatuaren bigarren paragrafoan azaldutako egoera gertatzen bada, 3. apartatu horretan adierazitakoek egin ahal izango dute.

5. Desgaitasuna edo mendekotasuna duen pertsona gradu desberdineko ahaide bat baino gehiagorekin bizi bada, hurbileneko ahaideek bakarrik aplikatuko dute kenkaria.

Gradurik hurbileneko ahaide bat baino gehiago izanez gero, kenkaria haien artean hainbanatuko da, zati berdinetan, artikulua honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituen pertsona bakoitzeko.

6. Artikulu honetan arautzen diren kenkariak bateragarriak dira foru arau honen 81. artikuluan ezartzen den aurreko ahaideen kenkariarekin eta arau beraren 82. artikuluan ezartzen den desgaitasun edo mendekotasunaren kenkariarekin.

Hamazazpi. 82. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

“1. Mendeko pertsona edo desgaitua den zergadun bakoitzagatik kenkari bat aplikatuko da, eta haren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da mendekotasunaren edo desgaitasunaren gradua zein den eta desgaituak hirugarren baten laguntza behar ote duen (gradu hori eta

hirugarren baten laguntza behar izatea erregelamendu bidez ezarriko dira). Hona hemen kenkari horri dagokion taula:

MEDEKOTASUNAREN EDO DESGAITASUNAREN GRADUA ETA HIRUGARREN BATEN LAGUNTZA BEHAR IZATEA	KENKARIA (EUROAK)
Ehuneko 33 - 65 bitarteko desgaitasuna	816
Ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa. Mendetasun ertaina (I. gradua)	1.165
Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 15 - 39 puntu besteren laguntza behar izateagatik. Mendetasun larria (II. gradua)	1.397
Ehuneko 75eko desgaitasuna edo handiagoa eta 40 puntu edo gehiago besteren laguntza behar izateagatik. Mendetasun handia (III. gradua)	1.743

Mendekotasunaren edo desgaitasunaren gradua eta laguntza behar izateagatik puntuak neurtzeko honako bi hauek ezartzen dutena aplikatuko da: abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren I. eranskina eta otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua, onesten duena besteren menpean bizi diren pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarri zuen mendekotasuna baloratzeko baremoa.

Kenkari bera aplikatuko da ezkontidea edo izatezko bikotekidea pertsona desgaitua edo mendekoa bada eta zenbaki honetan ezartzen diren betekizunak betetzen baditu”

Hemezortzi. 83. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

“1. 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko 352 euroko kenkaria aplikatuko da.

Zergadunak 75 urte baino gehiago badauzka, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 642 eurokoa izango da.

Apartatu honetan xedatzen dena aplikatzeko ezinbestekoa da zergadunaren zerga oinarria ez izatea 20.000 eurotik gorakoa.

2. 20.000-30.000 euro bitarteko zerga oinarria duten hirurogeita bost urtetik gorako zergadunek honela aplikatuko dute kenkari hau urtean: 352 euroko kenkari horri kendu egingo diote zerga oinarriari 20.000 euro kenduz lortzen den zenbatekoa bider 0,0352 eginez ateratzen den emaitza.

3. 20.000-30.000 euro bitarteko zerga oinarria duten hirurogeita hamabost urtetik gorako zergadunek honela aplikatuko dute kenkari hau urtean: 642 euroko kenkari horri kendu egingo diote zerga oinarriari 20.000 euro kenduz lortzen den zenbatekoa bider 0,0642 eginez ateratzen den emaitza”

Hemeretzi. 86. artikulua 7. apartatua gehitzen zaio; hona testua:

“7. Aurreko zenbakietan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako zenbatekoen parekoak izango dira erabilera lagapeneko erregimeneko etxebizitzengatik ordaindutako kanonak edo errenta sozialak, baldin eta ohiko etxebizitzat hartzen badira etxebizitza kooperatibetako edo bestelako elkarte moduetako bazkideek edo irabazteko asmorik gabeko elkarteetako bazkideek, betiere hotel industriari dagozkion zerbitzu osagarriak ematen ez badira; adibidez, jatetxea, arropa garbitzea edo antzeko beste batzuk, edo gizarte laguntzako zerbitzuak.

Hala ere, ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako zenbatekoen parekoak ez dira izango (eta ondorioz ez da aplikatuko artikulua honetan xedatzen dena) ohiko etxebizitzat hartzen diren eta ohiko etxebizitzat hartzen diren erabilera lagapeneko erregimeneko etxebizitzengatik ordaindutako kanonak edo errenta sozialak, erosketa aukeraren eskubidea edo jabetza transferitzeko klausula dutenak, bai eta etxebizitza kooperatibetako edo bestelako elkarte moduetako bazkideek edo irabazteko asmorik gabeko elkarteetako bazkideek ordaindutako beste batzuk ere, Eusko Legebiltzarraren Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintza guztiak betetzen ez direnean.

Administrazio publiko baten jabetzako lurren gaineko azalera eskubide bat eratuz egindako babes publikoko etxebizitzaren sustapenen kasuan, erabiltzeko eskubidearen izaera mugagabea betetzat joko da elkartekideen erabilera eskubidearen iraupena aipatutako azalera eskubidearen iraupenarekin bat datorrenean”.

Hogei. 87. artikuluari 4 bis) apartatua gehitzen zaio; hona:

“4 bis. Artikulu honen 5. apartatuaren c) letrako kasuetan, desgaitasuna ehuneko 75ekoa edo handiagoa bada eta hirugarren pertsona baten laguntza behar izateagatik 39 puntu baino gehiago lortzen badira edo mendetasuna larria bada (II. gradua) edo handia (III. gradua), kenkaria honako berezitasun hauekin aplikatuko da:

a) Aurreko 1. apartatuan ezartzen diren ehunekoak ehuneko 23koak izango dira, salbu eta artikulu honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan.

b) Aurreko 2. apartatuaren lehen paragrafoan ezartzen den urteko gehieneko kenkaria 1.955 eurokoa izango da, salbu eta artikulu honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan.

Zerga batera ordaintzea hautatzen bada eta kenkari hau aplikatzeko eskubidea daukan pertsonaren bat badago, kenkaria ehuneko 23koa izango da eta muga 1.955 eurokoa, artikulu honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.

Baldin eta zergadunak 4 bis) apartatuan ezartzen diren baldintzak betetzen baditu artikulu honen 5. apartatuaren c) letrari dagokionez, aurreko 1. apartatuaren hirugarren paragrafoan xedatzen dena aplikatu ahal bazaio, eta 30 urtetik beherakoa edo familia ugariren titularrak bada, edo kasu hauetako bat baino gehiago aplikatu ahal bazaizkio, honako berezitasun hauek aplikatuko dira:

a) Aurreko 1. apartatuan ezartzen diren ehunekoak ehuneko 25ekoak izango dira, salbu eta artikulu honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan.

b) Aurreko 2. apartatuan ezartzen den urteko gehieneko kenkaria 2.346 eurokoa izango da, salbu eta artikulu honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan.

Zerga batera ordaintzea hautatzen bada eta kenkari hau aurreko berezitasunekin aplikatzeko eskubidea daukan pertsonaren bat badago, kenkaria ehuneko 25ekoa izango da eta muga 2.346 eurokoa, artikulu honen 5. apartatuaren b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik”.

Hogeita bat. 87. artikulua 5. apartatuaren oraingo c) letra d) letra izango da eta c) letra honela gelditzen da:

“c) Ohiko etxebizitzan egokitapenerako egiten diren obra eta instalazioak, bai eta eraikineren elementu erkideak aldarazteko egiten direnak ere, baldin eta nahitaezko pasabide badira hiri lurreko finkaren eta herriko bidearen artean, berbarako, eskailerak, igogailuak, karrajuak, atariak edo arkitekturako beste edozein osagai, eta desgaituen edo mendekotasunean daudenen sentimenezko komunikaziorako edo haien segurtasunaren sustapenerako oztopoak gainditzeko eragingailu elektronikoak ezartzeko egiten direnak ere bai.

Kontzeptu honen barruan sartzen dira, halaber, letra honen laugarren paragrafoan aipatzen diren pertsonen errentari, azpierrenerari edo gozamendun gisa hartutako etxebizitzak egokitzeke egiten dituzten obrak eta instalazioak.

Egokitapenerako obrei eta instalazioei dagokienez, erregelamenduz ezartzen denaren arabera ziurtatu beharko da beharrezkoak direla desgaitasuna edo mendekotasuna daukaten pertsonen irisgarritasunerako eta sentimen komunikaziorako, hau da, haiek duintasunarekin eta modu egokian bizitzeko.

Obra horiek zergadun desgaituak edo mendekoak, desgaitasuna edo mendekotasuna daukan aurreko edo ondorengo batekin edo ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin bizi den zergadunak eta desgaitasuna edo mendekotasuna daukan batekin bizi den zergadunak

(baldin eta desgaituak edo mendekoak foru arau honen 82. artikuluan arautzen den kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen badio) egin behar ditu, bai eta ohiko etxebizitzaren osagai erki-deak aldatzeko obrak ordaintzera behartuta dauden jabekideek ere”

Hogeita bi. 87. artikuluko 9. paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“9. Zergadunak dirulaguntzarik jaso badu desgaitasun edo mendekotasunagatik etxebizitza erosteko, zaharberritzeko edo egokitzeke, eta dirulaguntza horiek salbuetsita badaude zerga honi buruzko araudia aplikatuz, dirulaguntza horien zenbatekoa kendu beharko zaie aurreko apartatueta aipatutako diru kopuruei, artikuluko honetan ezarritako kenkaria aplikatzeko.”

Hogeita hiru. 90 quater artikulua 2. apartatuaren bigarren paragrafoa honela geratzen da:

“Baldintza hauek, a), b) eta e) letretakoak ez beste guztiak, bost urtean bete behar dira entitate eratu ondoren, gutxienez. g) letrako baldintza ez da bete beharko entitatea eratu ondoko lehen sei hilabeteetan”

Hogeita lau. 97. artikulua 4. apartatua honela geratzen da:

“4. Zergadunek bidezko autolikidazioa aurkezten ez badute, beharrezkoa izan arren, zerga banaka ordaintzen dutela pentsatuko da”

Hogeita bost. 99. artikuluko 2. apartatuko e) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“e) 36.000 euroko kopurua, foru arau honen 87. artikuluko 3. apartatuan aipatzen dena, zergadun bakoitzari banaka aplikatuko zaio. Hala ere, urtean aplika daitekeen gehieneko kenkaria, foru arau honen 87. artikuluko 2., 4. eta 4. bis apartatueta aipatzen dena, ezin daiteke izan 1.530, 1.836, 1.955, 2.346, 1.955 eta 2.346 eurotik gorakoa, hurrenez hurren, familia unitateko kideen kopurua gorabehera; salbuespena: foru arau honen 98. artikuluko 1. apartatuan ezarri bezala familia unitateko kideek baterako aitortpena eginez gero, muga horiek bi halako izango dira”

Hogeita sei. 102. artikulua 3. apartatuaren azken paragraforen bigarren gidoiaren a') letra aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“a') Lanaren etekinatarako ezarritako atxikipen ehunekoaren taulak aplikatuko zaizkie sortutako lanaren etekinen zenbateko osoei, foru arau honetan xedatzen denaren arabera salbuetsita daudenak ez beste guztiei. Horretarako, kontuan hartuko dira atxikipena egin behar zaien etekinen zenbatekoa zehazteko arauak eta zergaren sortzapen egunean indarra duten atxikipen taulak finkatu eta aplikatzeko arauak”

Hogeita zazpi. Hogeigarren xedapen gehigarriaren bigarren apartatua honela geratzen da:

“Bi. Karga berezia aplikatuta kalkulatzen den zenbatekoa ez da sartuko foru arau honen 66. artikuluan aipatzen den aurrezkiaren zerga oinarrian, eta kuota osoari batuko zaio, foru arau honen 74. artikuluan ezartzen denaren arabera”

Hogeita zortzi. Hogeita laugarren xedapen gehigarriaren izenburua eta lehen apartatua honela geratzen dira:

“Hogeita laugarrena. Pertsona fisikoek Euskadiko Kooperatiben Legean arautzen diren mendeko finantza ekarpenen ondorioz lortutako etekinei aplikatzen zaien zerga araubidea.

1. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 57. artikulua 5. paragrafoan edo, behar denean, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 60. artikulua 6. paragrafoan aipatzen diren mendeko finantza ekarpenetatik eratorritako errentak kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ondorioz lortutako etekintzat joko dira, foru arau honen 35. artikuluan ezartzen denaren arabera”

Hogeita bederatz. Hogeita bosgarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Foru arau honen 66. artikulua 1. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, paragrafo horren a) eta b) letretan aipatzen diren saldo negatiboen zatia, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 60. artikulua 6. paragrafoan aipatzen diren mendeko finantza ekarpenen ondorio diren ondare galeren edo higigarrien kapitalaren etekin negatiboen emaitza dena, noiz gertatu den gorabehera, letra horietan aipatutako saldo positiboarekin konpentsatu ahal izango dira, bata zein bestea”

Hogeita hamar. Lehen xedapen iragankorraren lehen apartatuaren 1. erregelaren c) letra honela geratzen da:

“c) Eskualdatutako ondare elementuak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan, finantza tresnen merkatuei buruzkoan, definitutako bigarren mailako balore merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onartutako akzioak badira -sozietate edo entitateen funts propioetan parte hartzea adierazten dutenak-, kanpoan utzita ondasun higigarri zein higiezinetan inbertitzen dituzten sozietateen kapitalaren adierazgarri diren akzioak, murrizketa ehuneko 25ekoa izango da aurreko a) letran adierazitako iraupen urteak bitik gainditzen diren urte bakoitzeko”

7. artikulua. Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2022ko urtarrilaren 1az gero hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 13. artikulua 7. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“7. Entitatea Merkataritza Kodearen 42. artikulua araberako sozietate talde bateko kide denean, egoitza eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharrak edozein izanda ere, lehen adierazitako magnitudeak talde horretako entitate guztiei buruzkoak izango dira.

Aktibo osoa eta eragiketen bolumena kalkulatzeko, kontuan hartu behar dira Merkataritzako Kodearen 46. artikuluan eta hori garatzen duten arauetan ezartzen denaren arabera bidezkoak diren ezabaketak eta eransketak”

Bi. 22. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Zordunek dituzten kaudimengabezien ondoriozko kredituen narriadurek eragiten dituzten galerak kengarriak izango dira, urteko kontuak egiteko gehieneko epea amaitzen den egunean inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Betebeharrak iraungi denetik sei hilabete pasatu izana.

b) Zorduna konkurtso egoeran egotea.

c) Zorduna edo, entitatea izanez gero, horren administratzaile edo ordezkarietako bat ondasun altxamenduen delituagatik auzipetuta egotea.

d) Betebeharrak bide judizialetik eskatu izana, edo auzi judizial edo arbitrajeko prozeduraren batean egotea, eta kobratzeko horien ebazpena behar izatea.

Aurrekoa gorabehera, zordunen kaudimengabeziaren ondorioz kredituak narriatzeak dakartzen galerak kengarriak izango dira, baldin eta b) eta d) letretan jasotako inguruabarrak zergaren autolikidazioa aurkezteko epea hasi aurretik gertatzen badira”

Hiru. 23. artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoa honela geratzen da:

“1. Entitateen funts propioetako partaidetza adierazten duten baloreak narriatzeagatik gertatzen den galera ezin da izan du funts propioek ekitaldiaren hasieran eta amaieran dituzten balioen arteko diferentzia (horien partaidetzaren arabera) baino gehiago entitate horiek bigarren mailako merkatu antolatua batean kotizatzen ez dutenean edo, bestela, kotizatu arren, taldeko edo sozietate taldeaniztuneko entitateen edo sozietate elkartuen kapitala adierazten dutenean, merkataritza legerian jasotakoari jarraituz. Konputu horretan ekitaldian egindako ekarpenak eta ekarpenen itzulketak hartu beharko dira kontuan”

Lau. 24. artikulua 4. apartatuaren lehen paragrafoa honela geratzen da:

“4. Bigarren mailako merkatu antolatu baten bidez erosi ez diren partaidetzei dagokienez, artikulua honetan xedatutakoa aplikatu beharko da partaidetza erosten duen entitatea ez bada sartzen, pertsona edo entitate eskualdatzaileari dagokionez, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan jasotako kasuetako batean.”

Bost. 40. artikulua 4. apartatua honela geratzen da:

“4. Ekarpenen itzulketarekin egiten den kapital murrizketan, bazkideen zerga oinarrian sartuko da partaidetzaren balio fiskalaren gainetik hartutako elementuen merkatuko balio normalak duen gaindikina.

Erregela bera erabiliko da akzio edo partaidetzen jaulkipen primen banaketan.”

Sei. 43. artikuluko 5. apartatuko g) letrako 3. zenbakia honela idatzita geratzen da:

“3. Eragiketan negozioak eskualdatzen badira, edo mota guztietako entitateen funts propioetako partaidetzaren adierazgarri diren baloreak nahiz partaidetzak eskualdatzen badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EE Zuzentarauan (finantza tresnen merkatuei buruzko zuzentaraua) zehaztutako balore merkatu arautuetan negoziatzeko onartuta ez daudenak.”

Zazpi. 43. artikuluko 10. apartatuko b) letrari bigarren paragrafo bat gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

“2016ko maiatzaren 25eko Kontseiluaren 2016/881 (EB) Zuzentarauaren zentzuan nazioarteko akordio bat egonik, zeinak 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen baitu zergen arloko informazioaren nahitaezko truke automatikoari dagokionez aipatutako entitate ez-egoiliarra bizi den herrialde edo lurraldearekin, ez dagoela agintaritzaren eskudunen artean informazio hori automatikoki trukatzeko akordiorik aipatutako herrialdearekin edo lurralde horrekin.”

Zortzi. 51. artikulua 1. eta 5. apartatuak honela geratzen dira:

“1. Zergadunek zerga oinarritik kendu ahal izango dute zerga ondorioetarako beren ondare garbian aurreko ekitaldiko batez bestekoaren aldean gertatutako gehikuntzaren ehuneko 15. Kenkaria aplikatuz gero, gehikuntzaren besteko zenbatekoa erreserba batean sartu behar dute eta ezin dute erreserba hori baliatu gutxienez bost urte pasatu arte kenkaria aplikatzen den zergaldia amaitzen denetik, kapitalean sartutako gehikuntzaren zatia izan ezik.

Bost urteko epealdi horretan, entitatearen zerga ondorioetarako ondare garbiaren zenbatekoak lehengoan jarraitu edo gora egin beharko du, salbu eta kontabilitateko galeren ondorioz jaitsiera gertatzen denean.

Entitate berrien kasuan, lehenengo ekitaldian, aurreko ekitaldiko zerga ondorioetarako ondare garbitzat hau hartuko da: entitatea eratu zenetik igaro den denboran zerga ondorioetarako ondare garbiak izandako batez besteko zenbatekoa.

Lege edo estatutuetan hala aginduta, erreserbetarako zuzkidura nahitaez egiten denean, horrek zerga ondorioetarako ondare garbian eragiten duen gehikuntzari ezingo zaio aplikatu artikulua honetan xedatutakoa.”

“5. Foru arau honen 13. artikuluan aipatutako mikroenpresa eta enpresa txikiak bost portzentaje puntu gehitu ahal izango dizkiote artikulua honen 1. apartatua ezartzen diren ehunekoei. Haien ere artikulua honen aurreko apartatuetan ezartzen diren betekizunak eta baldintzak bete behar dituzte.

Foru arau honen 32. artikulua 4. apartatua xedatzen denaz baliatzen diren mikroenpresek ezin dute aplikatu artikulua honetan xedatutakoa.”

Bederatzi. 52. artikulua 1. eta 2. apartatuak honela geratzen dira:

“1. Zergadunek zerga oinarritik kendu ahal izango dute mozkinak nibelatzeko erreserba berezi baten zuzkidurarako erabiltzen duten kontabilitate emaitza positiboaren zenbatekoa, gehieneko muga hau gainditu gabe: emaitza horretatik merkataritzako legeriarekin eta haren estatutu aurreikuspenekin bat etorriz libreki balia dezaketen zatiaren ehuneko hamar.

Artikulu honetan xedatzen dena aplikatuz zerga oinarrian egiten den murrizketak ezingo du gainditu zergaldiko zerga oinarriaren zenbatekoaren ehuneko hamabost, kapitulu honetan aurreikusitako zuzenketak egin eta foru arau honen 55. artikuluan aurreikusitako zerga oinarrien konpentsazioa egin aurretik.

Halaber, mozkinak nibelatzeko erreserba bereziaren saldoak inoiz ere ezingo du gainditu zergadunaren zerga ondorioetarako ondare garbiaren ehuneko 25, ondare garbitzat hartuta foru arau honen 47. artikulua 2. apartatua hala definitutakoa.

2. Artikulu honetan xedatutakoaren babesean aplikatzen diren kenkariak zerga oinarria handituko dute baldin eta, mozkinak nibelatzeko erreserba bereziko zuzkidura zein zergalditako kontabilitate emaitza positiboaren kargura egin den, zergaldi hartako azken egunaren hurrengo hamar urteetan amaitzen diren zergaldietakoren batean zergadunak zerga oinarri negatiboa aurkezten badu (zerga oinarri negatiboa gehienez).

Apartatu honetan ezarritako epealdian zergadunak zerga oinarri negatiborik aurkezten ez badu edo horren zenbatekoa ez bada nahikoa artikulu honetan xedatutakoaren babesean kendutako zenbateko osoak aplikatzeko, gainerako zenbatekoa zerga oinarriari gehituko zaio aipatutako epealdia amaitzen den zergaldian, eta zenbatekoaren ehuneko 30eko zuzenketa positibo gehigarria egingo da”

Hamar. 62. artikulua 2. apartatuaren d) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“d) Software aurreratua sortzea, konbinatzea eta konfiguratzea, produktu, negozio prozesu edo zerbitzu berriak edo nabarmen hobetuak egiteko erabiltzen diren teorema eta algoritmo edo sistema eragile, lengoaia, interfaze eta aplikazio berrien bidez, betiere, aurrerapen zientifiko edo teknologiko esanguratsua badakar eta informatikaren eta konputazio zientzien arloko ziurgabetasun zientifiko edo tekniko bat konpontzea badu helburu.

Kontzeptu horrekin parekatuko da desgaitasuna duten pertsonei informazioaren gizarteko zerbitzuetarako sarbidea errazteko “softwarea”, irabazteko asmorik gabe egiten denean.

Jakintzaren aurrerapena eta ekarpena zientziaren eta teknologiaren beste arlo batzuetan egiten bada, “softwarea” oinarritzko ikerketako, ikerketa aplikatuko edo garapen esperimentaleko jardueretan parte hartu ahal izango du, kasuaren arabera, artikulu honetan zehazten den bezala.

d) letran ezarritako kontzeptutik kanpo geratzen dira:

1. “Softwarearen” erabilera berriak, aurrerapen zientifiko edo teknologiko esanguratsurik eta ezagutzari ekarpenik egin gabe.

2. “Softwarea” mantentzearekin edo haren eguneratzeekin lotutako ohiko edo ohiko jarduerak”

Hamaika. 63. artikulua 2. paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“2. Berrikuntza teknologikoa da ondasun edo zerbitzu berriak edo hobetuak merkatuan sartzea ahalbidetzen duen aurrerapen teknologikoa, edo enpresan negozio prozesu berriak edo hobetuak ezartzea, lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.

Ondorio horietarako, ondasun, zerbitzu edo negozio prozesuak berriak edo hobetuak izango dira, baldin eta, teknologiaren ikuspegitik, teknologia berriak erabiltzearen ondorioz edo lehendik dauden teknologien erabilera edo konbinazio berrien ondorioz lehendik zeudenak baino ezaugarri edo aplikazio desberdinak badituzte, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

Jarduera horren barruan sartuko da produktu edo prozesu berriak plan, eskema edo diseinu batean gauzatzea, bideragarritasun azterketak egitea, prototipoak sortzea eta hasierako erakusketarako proiektuak edo proiektu aitzindariak eta ehunen lagindegia egitea, bai eta aplikazio industrialetarako edo merkataritzako ustiapenerako bihurtu edo erabili daitezkeenak ere.

Era berean, artikuluko honen 3. apartatuaren a) letran aipatzen diren entitateek soluzio teknologiko aurreratuak identifikatu, definitu eta orientatzeko egiten dituzten diagnostiko teknologikoko jarduerak ere sartzen dira, direnak direla emaitza horiek.

Hamabi. 63. artikuluko 3. paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“3. Kontzeptu hauei lotutako berrikuntza teknologikorako jardueretan zergaldian egindako gastuak sartzen dira kenkariaren oinarrian:

a) Ondokoei agintzen zaizkien proiektuak: unibertsitateak, ikerketako erakunde publikoak edo zentro teknologikoak eta teknologiaren berrikuntzarako zentroak (hala onartuta eta erregistratuta daudenak Estatuko zentro teknologikoak eta teknologiaren berrikuntzarako zentroak arautu eta zentro horien erregistroa sortu duen abenduaren 19ko 2093/2008 Errege Dekretuaren arabera), eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen oinarriak eguneratzen dituen urriaren 1eko 221/2002 Dekretuaren bidez araututako Teknologiaren Euskal Sarean dauden entitateak.

b) Software ingeniarietza, diseinu industriala, eta produktu berriaren edo negozio prozesuaren ingeniarietza eta diseinua, hauexek barne hartuta: produktu edo prozesu bat fabrikatzeko, probatzeko, instalatzeko eta erabiltzeko beharrezkoak diren elementu deskribatzaileak, espezifikazio teknikoak eta funtzionamendu ezaugarriak definitzeko planoak, marrazkiak eta euskarriak sortzea eta lantzea, baita ehun laginak egitea ere.

c) Teknologia aurreratua patenteen, lizentzien, Know howen eta diseinuen bidez eskuratzea. Apartatu honetan sartuko dira industria patenteen eta diseinuen eskaerei dagozkien gastuak.

Zergadunarekin lotutako pertsoneri edo entitateei ordaindutako kopuruek ez dute kenkarirako eskubiderik emango.

Kontzeptu honi lotutako oinarria ezin da milioi bat euro baino gehiago izan.

d) ISO 56002, UNE 166000 edo antzeko arauen betetze ziurtagiria lortzea, arau horiek ezartzeari dagozkion gastuak barne hartu barik.

Hamahiru. 64. artikuluko 2. apartatua 3. apartatua izango da eta 2. apartatu berria gehitzen da; hona testua:

“2. Aurreko 62. eta 63. artikuluetan aipatutako kenkariaren oinarrian ez dira sartuko honako gastu hauei dagozkien zenbatekoak, besteak beste:

a) Bidaia gastuak, dietak, egonaldia eta lokomozioa.

b) Prestakuntza gastuak.

c) Proiektuaren dokumentazio gastuak.

d) Proiektuaren kudeaketari eta ziurtaginari lotutako aholkularitza eta ziurtagin gastuak.

e) Administrazio gastuak eta bulegoko materiala.

f) Proiektuari atxikitako enpresa gastu orokorrak, ez eta, oro har, ikerketako eta garapeneko jarduerekin edo berrikuntzako jarduerekin zuzenean lotuta ez daudenak eta jarduera horiek egiteko benetan aplikatzen direnak ere”

Hamalau. Aldatzen dira 77. artikuluko 1. apartatua eta 10. apartatua, eta honela idatzita geratzen dira:

“1. Arrisku kapitaleko entitateek, zeinak azaroaren 12ko 22/2014 Legean arautzen diren (lege horrek arrisku kapitaleko entitateak, inbertsio kolektiboko bestelako entitate itxiak eta inbertsio

kolektiboko entitate itxien entitate kudeatzaileak arautzen ditu, eta azaroaren 4ko 35/2003 Legea —Inbertsio kolektiboko entitateena— aldatzen du), foru arau honetako 34. artikuluko 1. zenbakian ezarritako araubidea aplikatu ahal izango diete lege horretako 3. artikuluan aipatzen diren enpresen kapitaleko edo funts propioetako partaidetza ordezkatzan duten baloreak eskualdatuz lortzen dituzten errentei, edozein izanda ere partaidetzaren ehunekoa edo antzintasuna, betiere hamabost urte baino gutxiago igaro badira partaidetza eskuratu zenetik.

Salbuespen gisa, epealdi hori hogeigarren urtea amaitu arte luza daiteke. Erregelamendu bidez ebatziko da luzapen hori noiz aplikatu eta nolako baldintzak eta betekizunak bete behar diren horretarako.

Gainerako kasuetan, arrisku kapitaleko entitateek foru arau honen 34. artikuluan 1. apartatuan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Hala ere, azaroaren 12ko 22/2014 Legearen 9. artikuluan 2. paragrafoaren a) letraren bigarren paragrafoan aipatzen diren enpresen kapitaleko edo funts propioetako partaidetza adierazten duten baloreak eskualdatuta lortzen diren errenten kasuan, paragrafo honetan xedatutakoa aplikatzeko honako baldintza hau bete beharko da: partaidetza hartutako entitatearen higiezinak guztirako kontabilitate balioaren ehuneko 85 gutxienez dagokien higiezinak baloreak edukitzen diren aldi osoan jarduera ekonomiko bat, finantza jarduera ez beste bat, egiteari atxikita egotea, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ezartzen denarekin bat etorritik, arrisku kapitaleko entitateak eta haien sozietate kudeatzaileak edo higiezinak arautzen dituen Legean zehazten den bezala.

“10. Partaidetzapeko entitatea balore merkatu arautu batean kotizatzeko onartzen bada, aurreko 1. apartatuan ezartzen den araubidea aplikatu ahal izateko, arrisku kapitaleko entitateak gehienez ere hiru urteko epean eskualdatu beharko du partaidetzapeko enpresaren kapitalean daukan partaidetza, azken hori kotizatzeko onartu den egunetik aurrera kontatuta”

Hamabost. 89. artikulua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“89. artikulua. Zerga taldeen zerga oinarriaren zehaztapena.

1. Zerga taldearen zerga oinarria kalkulatzeko kopuru hauek batu behar dira:

a) Zerga taldeko entitate guztiei dagozkien banakako zerga oinarriak, kopuru horietan banakako zerga oinarri negatiboen konpentsazioak jaso gabe, ezta foru arau honetako IV. tituluko V. kapituluan ezarritakoaren araberrako emaitzen aplikazioan egin beharreko zuzenketak ere.

b) Ezabaketak.

c) Aurreko ekitaldietan egindako ezabaketen eransketak.

d) Foru arau honen IV. tituluan V. kapituluan ezarritakoaren arabera zerga taldearen emaitzen aplikazioan egin beharreko zuzenketak (kopuruak kalkulatzeko artikuluko honetako 4. apartatuan xedatzen dena aplikatuko da).

e) Zerga taldearen zerga oinarri negatiboen konpentsazioa, baldin eta aurreko letretako kopuruen batura positiboa bada, eta foru arau honen 92. artikuluan 2. apartatuan aipatzen diren zerga oinarri negatiboen konpentsazioa.

2. Foru arau honetako 33 - 35 bitarteko artikuluetan xedatutakoa aplikatzeko betekizunak zerga taldeari dagozkie.

3. Ezabaketak eta eransketak egiteko Merkataritzako Kodeko 46. artikuluan ezarritako irizpideak eta hura garatzen duten gainerako arauak hartuko dira aintzat.

Hala ere, jabetza intelektualaren edo jabetza industrialaren gaineko eskubideen lagapenak sortzen dituen sarrerak eta eragiten dituen gastuak, foru arau honen 37. artikuluko lehen hiru apartatuetan aipatzen direnak, ezin dira ezabatu zerga taldearen zerga oinarria kalkulatzeko, nahiz eta lagapena taldeko entitateen artean egin.

4. Foru arau honen IV. tituluaren V. kapituluaren ezarritakoaren arabera zerga taldearen emaitzen aplikazioan egin beharreko zuzenketen zenbatekoa kalkulatzeko, zerga taldearen magnitudeak kalkulatzeko zergaldiko azken eguneko urteko kontu bateratuak hartu behar dira aintzat.

Edonola ere, erreserba taldeko edozein entitatek hornituko ditu.

Zerga taldeei inolaz ere ezin zaie aplikatu foru arau honen 51. artikulua 5. apartatuaren lehen paragrafoan xedatutakoa, ezta 52. artikulua 4. apartatuaren lehen paragrafoan xedatutakoa ere.

5. Foru arau honen 51. artikulua ezartzen den emaitzen aplikazio arloan zuzenketak zerga taldean integratu aurretik egin duten entitateen kasuan, 51. artikulua 3. apartatua ezartzen denaren babesean taldearen parte diren zergaldietan zerga oinarria areagotu behar badute, kasuan kasuko zenbatekoak taldearen zerga oinarria gehituko dute.

Halaber, talde fiskalean sartu aurretik foru arau honen 51. artikulua ezartzen den emaitza aplikatzeko zuzenketari dagokion erreserba hornitu duten entitateen kasuan, eta 51. artikulua 4. apartatua ezarritako baldintzetan zerga oinarriaren eskasiagatik kendu gabe dauden kopuruak badituzte, talde fiskalak kopuru horiek kendu ahal izango ditu bere zerga oinarritik, zergaldian entitateak lortzen duen banakako zerga oinarri positiboaren mugarekin, kontuan hartuta entitate horri dagozkion ezabatzeak eta eransketak, foru arau honen 90. eta 91. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

6. Talde fiskal batean sartzen diren eta entitatearen zerga oinarria handitzeko zain dauden entitateei buruzko foru arau honen 52. artikulua mozkinak berdintzeko araututako erreserba bereziari dagozkion kopuruek taldearen zerga-oinarria handituko dute aipatutako 52. artikulua 2. eta 3. apartatuetan ezartzen diren inguruabarrak gertatzen direnean, kontuan izanik emaitzaren aplikazioari dagokion zuzenketa aplikatu zuen entitatearen zerga oinarri indibidualaren zenbatekoa, kontuan hartuta entitate horri dagozkion ezabatzeak eta eransketak, foru arau honen 90. eta 91. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

7. Foru arau honek 53. artikulua arautzen duen ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen jardura sendotzeko erreserba berezia hornitu badute entitateek zerga taldean sartu baino lehen eta taldean sartzeko erreserba hori egin gabe eduki badute, taldeko edozein entitatek gauzatu dezake erreserba hori.

Foru arau honen 53. artikulua 3. eta 4. apartatuetan ezartzen diren kasuetan, kasuan kasuko zenbatekoek zerga taldearen zerga oinarria gehituko dute.

8. Talde fiskalaren osagai izateari uzten dion entitate baten partaidetza eskualdatetik eratorritako errenta negatiboaren zenbatekoari kenduko zaio eskualdatutako entitateak talde fiskalaren barruan sortu dituen eta hartan konpentsatu diren zerga oinarri negatiboek dagokien zenbateko haren zatia”.

Hamasei. 92. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“2. Talde fiskalean sartzean konpentsatzeko dauden edozein entitatearen zerga oinarri negatiboak haren zerga oinarrian konpentsatu ahal izango dira, entitatearen beraren zerga oinarri indibidualaren ehuneko 50eko edo ehuneko 70eko mugarekin, kasuan kasukoa, eta entitate horri dagozkion ezabatzeak eta eransketak kontuan hartuta, foru arau honen 90. eta 91. artikuluetan ezartzen denaren arabera”.

Hamazazpi. 96. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“2. Talde fiskalean sartzeko unean aplikatzeko dauden edozein entitatearen kenkariak talde fiskalaren kuota osoan kendu ahal izango dira, entitate horri tributazioaren araubide indibidualaren dagokion mugarekin eta beraren ezabaketak eta eransketak kontuan hartuta, foru arau honen 90. eta 91. artikuluetan ezartzen denaren arabera”.

Hemezortzi. Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da; hona testua:

“Hogeita zazpigarrena. Kuota likidoaren kenkariaren muga orokorra: ehuneko 35.

Zergen arloko araudian ezartzen diren kenkarietatik foru arau honen 67. artikulua aplikatu ahal zaien kenkariak ehuneko 35eko muga edukiko dute, berariaz besterik ezarri ezean”.

Hemeretzi. Hogeita batgarren xedapen iragankorra gehitzen da; hona testua:

“Hogeita batgarrena. Sozietateen gaineko zergaren karga tasa orokorra aplikatzen ez zaien kapital aldakorreko inbertsioko sozietate batzuk desegitea eta likidatzea.

1. Sozietateen Gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen berrogeita batgarren xedapen iragankorraren lehen apartatuan ezartzen denaren arabera desegiten eta likidatzen diren kapital aldakorreko inbertsioko sozietateen bazkideek honako zerga araubide hau edukiko dute:

a) Salbuespena ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan; kontzeptua: “sozietate eragiketak”; zerga egitea: “sozietatea desegitea”; Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Foru Arauaren 45.1.1 artikulua.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ondorioetarako, likidatzen ari den sozietate baten bazkideek ez dituzte zenbatu behar beren zerga oinarrian entitatearen desegitearen ondoriozko errentak, baldin eta likidazio kuota gisa esleitzen zaien diru edo ondasuntza guztia berrinbertitzen badute, hurrengo paragrafoan zehazten den bezala eta ezartzen diren baldintzak beteta, 27/2014 Legearen 29. artikulua 4. apartatuaren a) edo b) letretan aipatzen diren inbertsio kolektiboko entitateetako baten akzioak edo partaidetza eskuratzeko edo harpidetzeko. Hala gertatzen bada, eskuratu edo harpidetutako akzio edo partaidetza berrien balioa eta eskuratze data likidatutako sozietatearen akzioenak izango dira.

Letra honen aurreko paragrafoan ezartzen denari heldu nahi dioten bazkideek asmo horren berri eman beharko diote likidatzen ari den sozietateari. Halako kasuetan entitateak ez die ez dirurik ez ondasunik emango bazkideei likidazio kuota gisa. Gainera, sozietateak ez badaki bazkide baten akzioak noiz eta zer balioekin eskuratu ziren, bazkideak informazio hori argitzen duen dokumentazioa eman beharko dio.

Bazkidearen likidazio kuotako dirutza edo ondasuntza osoa berrinbertitu beharko da. Ezin da egin berrinbertsio partzialik. Berrinbertsioa inbertsio kolektiboko entitate batean zein batzuetan egin daiteke.

Bazkideak bere identifikazio datuak eman beharko dizkio berrinbertsioa egingo duen inbertsio kolektiboko entitateari, bai eta likidatzen ari den sozietatearen datuak, entitate kudeatzailearen datuak eta entitate gordailuzainarenak ere, eta berrinbertsiorako erabiliko duen likidazio kuotako diru kopurua edo ondasunen kopurua jakinarazi beharko dio. Hori dela-eta, bazkideak akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko agindua bete beharko du, eta baimena eman beharko dio entitate horri agindua izapidetzeko likidatzen ari den sozietatearen aurrean.

Likidatzen ari den sozietateak agindua jaso ondoren berrinbertsioa berehala egin beharko da; horretarako, sozietate horrek entitate gordailuzainari agindu beharko dio transferentzia egiteko bazkidearen kontura eta beraren aginduz, hau da, berrinbertitu beharreko dirua edo ondasunak likidatzen ari den sozietatearen kontuetatik berrinbertsioa jasoko duen inbertsio kolektiboko entitatearen kontuetara pasatzeko. Transferentziarekin batera berrinbertsioa egiteko erabili diren likidatzen ari den sozietatearen akzioei buruzko informazioa eman beharko da: balioak eta eskuratze datak.

Letra honen lehen paragrafoan ezartzen den tratamendua aplikatu ahal izateko, berrinbertsioa 27/2014 Legearen berrogeita batgarren xedapen iragankorraren 1. apartatuan desegiteko eta likidatzeko erabakia hartzeko ezartzen den epealdia amaitzen denetik zazpi hilabete pasatu baino lehen egin beharko da.

c) Finantza transakzioen gaineko zergari buruzko urriaren 15eko 5/2020 Legean aipatzen diren balore eskuratzeak 1. apartatu honetan ezartzen denaren ondorioz gertatzen badira, zerga horren kargatik salbuetsita egongo dira, baldin eta berrinbertsioa egiten bada apartatu honen b) letran ezartzen denarekin bat etorritz.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena aplikatzeko eskubidea egiaztatzeko, apartatu honen b) letraren laugarren paragrafoan aipatzen den eskuratzeko edo harpidetzeko agindua beharko da, eta behin-behinean, agindu hori aurkeztu arte, sozietatea desegiteko eta emaitzako aktiboa bazkideen artean banatzeko akordioak, eta bazkideak b) letraren bigarren paragrafoan aipatzen denaren berri eman beharko du.

2. Xedapen iragankor honetan aipatzen diren kapital aldakorreko inbertsio sozietateen likidazioen ondoriozko errentak direla-eta ez da egin beharko konturako ordainketarik bazkidearen gaineko zerga pertsonalagatik, baldin eta bazkideak aurreko 1. apartatuaren b) letran arautzen den berrinbertsioaren araubidea aplikatzen badu.

3. Xedapen iragankor honetan ezartzen dena ez da aplikatuko Inbertsio kolektiboko entitateen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 33 bis artikuluan aipatzen diren inbertsio askeko sozietatea desegin eta likidatzen denean, ez eta Inbertsio kolektiboko entitateen azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzen duen Erregelamenduaren 79. artikuluan aipatzen diren kotizatutako kapital aldakorreko inbertsio sozietatea desegin eta likidatzen denean ere (erregelamendu hori uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onesten du):

8. artikulua. Kooperatiben zerga araubidea

Honako aldaketa hauek egiten dira Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauan (aldaketa hauek 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 5. artikulua 1. apartatuaren b) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“b) Nekazaritzako eta elikagaigintzako kooperatibak”

Bi. 6. artikulua 3. baldintza honela geratzen da:

“3. Besteren konturako lan kontratua duten pertsonak urtean egiten dituzten orduen kopurua ez izatea Euskadiko kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 103. artikulua 4. apartatua ezartzen diren mugak baino gehiago. Nolanahi ere, lan elkartuko kooperatiba txikien kasuan, besteren konturako langileak kontratatuzko mugak Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 138. artikuluan ezartzen direnak izango dira”

Hiru. 7. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“7. artikulua. Nekazaritzako eta elikagaigintzako kooperatibak.

Nekazaritzako eta elikagaigintzako kooperatibak babes berezikoak izango dira honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Bazkideak nekazaritza, baso eta abeltzaintzako ustiategien edo ustiategi mistoen tituluak diren pertsona fisikoak izatea, beti ere ustiategi horiek estatutuen arabera kooperatibaren jardura zabaltzeri den esparru geografikoan daudenean.

Bazkide izan daitezke, halaber, nekazaritzako eta elikagaigintzako kooperatibak eta ustiapen komunitarioko kooperatiba babestuak, foru arau honen lehen xedapen gehigarrian aipatzen diren eraldaketarako nekazaritza sozietateak, erakunde publikoak, kapital sozialaren gehiengoa partaidetza aurreko paragrafoko baldintzak betetzen dituzten erakunde publikoek eta ondasun eta eskubide erkidegoek, dauzkaten sozietateak, baldin eta kide bakarrak pertsona fisikoak eta titulartasun partekatuko entitateak (Nekazaritzako ustiategien titulartasun partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legean aipatzen direnak) badira.

2. Beren jarduerak betetzean honako muga hauek errespetatzea:

a) Kooperatibak edozein prozedura erabilita berak edo bere bazkideek ustiatzeko xedearekin eskuratzen, alokatzen, lantzen, ekoizten, egiten edo fabrikatzen dituen gaiak, produktuak nahiz zerbitzuak ez lagatzea bazkideak ez diren hirugarrenei, salbu eta kooperatibaren jardueraren gerakin arruntak badira edo kooperatibari egotzi ezin zaizkion inguruabarren ondorioz lagatzen badira.

Nekazaritzako kooperatibek txikizka banatu ahal izango dizkiete petrolio produktuak bazkide ez diren hirugarrenei, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 113. artikulua 2. apartatua ezartzen diren mugen barruan.

b) Kooperatibaren edo bertako bazkideen ustiategien antzeko beste ustiategi batzuetako produktuak ez gordetzea, ez tipifikatzea, ez manipulatzea, ez eraldatzea, ez garraiatzea, ez banatzea, ez merkaturatzea honako kopuru hauetatik gora ekitaldi ekonomiko bakoitzean: beren produktuengatik lortutako merkaturako prezioaren ehuneko bosta edo, estatutuetan ezarriz gero, prezio horren ehuneko 49.

Ehuneko hori modu independentean zehaztuko da apartatu honetan adierazten diren prozesuetatik kooperatibak hirugarren nekazaritzako produktuak erabiltzen dituen bakoitzerako.

3. Aurreko 1. apartatua aipatutako eremu geografikoan dagoen bazkide bakoitzaren landa ondasunei dagokien ondasun higiezinaren gaineko zergaren zerga oinarriak 60.101,21 euro baino gehiago ez izatea.

Abeltzaintza independenteko ustiategietako titularrak diren bazkideak dituzten abeltzaintzako produktuak merkaturatzen eta aldatzen lanean ari diren kooperatibak direnean, bazkide bakoitzarengatik (erakunde publikoak eta erakunde publikoak gehiengo kapitala duten sozietateak izan ezik) ekonomia ekitaldi bakoitzean kooperatibaren barruan nahiz kanpoan egindako salmenten bolumena ezin da 300.506,05 euro baino gehiago izan.

Muga horiek aplikatzeko, beste kooperatiba, sozietate, edo ondasun komunitate batzuk bazkideak badira, horien zerga oinarriak edo salmenten bolumena estatutuen arabera proportzioan egotziko zaizkie bazkideei. Titulartasun partekatuko entitateen kasuan (Nekazaritzako ustiategien titulartasun partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legean aipatzen diren entitateak), entitatea bera hartuko da bazkidetzat.

Salbuespen gisa, zerga oinarria edo salmenten bolumena aurrean adierazitakoa baino handiagoa duten bazkide bat baino gehiago egotea onartuko da, baldin eta beren guztirako kopurua ez bada gainerako bazkide guztienaren ehuneko 30 baino gehiago”

Lau. 8. artikulua 2. baldintza honela geratzen da:

“2. Besteren konturako lan kontratua duten pertsonen urtean egiten dituzten orduen kopurua ez izatea Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 103. artikulua 4. apartatua ezartzen diren mugak baino gehiago. Nolanahi ere, lan elkartuko kooperatiba txikien kasuan, besteren konturako langileak kontratatuzko mugak Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 138. artikulua ezartzen direnak izango dira”

Bost. 10 bis artikulua 1. apartatua b) eta c) letrak honela geratzen dira:

“b) Kooperatibak eraikitzen dituen etxebizitzak bazkideen ohiko etxebizitzak izatea. Bazkideek horren berri eman behar dute etxebizitzaren erosketari buruz. Hala ere, sustatutako etxebizitzak bazkide ez diren pertsonen besterendu ahal izango dizkiete beharrezkoa izanez gero kooperatibaren sustapena finantzatzeko, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 117. artikulua 2. apartatua ezartzen denarekin bat etorriz.

Hori dela-eta, ohiko etxebizitzatzat joko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 87.8 artikulua halakotzat definitutakoa.

c) Kooperatiba ez desegitea eraikitako etxebizitzak adjudikatu edo eskualdatu ondoko bost urteetan, honako kasu honetan izan ezik: entitate sustatzaileak ezkutuko akatsengatik erantzuteko ezarritako bermealdia eta legezko aldia, etxebizitzak adjudikatzen edo eskualdatzen direnetik zenbatu beharrekoa, edo estatutuetan edo erakunde publikoekin sinatutako hitzarmenetan ezarritakoa luzeagoa izatea; hala izanez gero, epealdi luzeena aplikatuko da”

Sei. 12. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“3. Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legeko 72. artikuluan ezarritako kontribuzioak artikulua honetan ezarritako helburuak ez beste zerbaitearako erabiltzea.

Zazpi. 12. artikulua 9. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“9. Kooperatibak ehuneko 25etik gorako partaidetza edukitzea, zuzenean edo zeharka, kooperatiba ez diren entitateen kapital sozialean.

Nolanahi ere, partaidetza hori ehuneko 50ekoa izan daiteke entitateak kooperatibaren jarduerak prestatzeko edo osatzeko jarduerak edo haien mendekoak egiten baditu.

Partaidetza horiek, guztira, ezin dira izan kooperatibaren baliabide propioen ehuneko 50 baino gehiago.

Ogasuneko zuzendaritza nagusiak baimena eman ahal izango du, ebazpen idatzi eta arrazoitu baten bidez eta alde aurretik eskatuta, kooperatibaren zuzeneko edo zeharkako partaidetza handiagoa izateko, bai eta kooperatibaren baliabide propioekiko muga handiagoa izateko ere, fiskalki babestutako kooperatibaren izaera galdu gabe, baldin eta justifikatzen bada partaidetza horrek kooperatibaren helburu sozialak hobeto betetzen laguntzen duela eta ez dituela urratzen kooperatibaren jarduteko funtsezko printzipioak.

Baldin eta kooperatiba batek ehuneko 50etik gorako partaidetza eskuratzen badu partaidetza daukan kooperatibaz besteko entitate batean eta horren aktiboan nagusi badira kooperatiba ez diren beste entitate batzuen kapitaleko partaidetzak, partaidetza guztien balioa kalkulatzeko (eta kooperatibaren beraren baliabide propioena), urteko kontu bateratuetako zenbatekoak hartuko dira kontuan.

Eskaera aurkeztu eta, kooperatibari ebazpena berariaz jakinarazi izan gabe, hiru hilabete igarotakoan, baimena emandakotzat hartuko da”

Zortzi. 15. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“3. Aurreko apartatuan xedatzen dena gorabehera, kontsumoko, etxebizitzako, nekazaritzako eta elikagaietako kooperatibak edo, beren estatutuen arabera, beren bazkideentzako zerbitzu edo horniketak egiten dituzten kooperatibak direnean, eragiketen prezioztat joko da eragiketak egiteko benetako prezioa, baldin eta, entitatearen gastu orokorren zatia barne, zerbitzu edo hornidura horien kostutik beherakoa ez bada. Hala bada, kostu hori aplikatuko da. Nekazaritzako eta elikagaietako kooperatibetan sistema hau aplikatuko da kooperatibak bere bazkideei ematen dizkien zerbitzuetarako eta horniduretarako, bai eta bazkideek kooperatiban egiten edo ematen dituztenetarako ere”

Bederatzi. 16. artikulua 4. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“4. Bazkideek kapital sozialari nahitaez edo borondatez egindako ekarpenengatik sortutako interesak, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 60.6 artikuluan araututakoak barne, eta lege horren 70.2.a) eta 72. artikuluetan ezartzen diren hezkuntzarako eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenetarako zuzkiduren ondoriozkoak, betiere, interes tasak ez badu gainditzen diruaren legezko tasa, bi puntu gehituta bazkideentzat eta lau puntu bazkide laguntzaile edo ez-aktiboentzat. Ekitaldi ekonomikoa ixtean indarrean dagoen legezko interes tasa hartuko da erreferentziatzat.

Ez dira kengarriak izango kooperatibako partaidetza bereziak ordaintzeko ematen diren kopuruak, baldin eta titularrak ez badira kooperatibako bazkide edo kide elkartu eta partaidetzak sozietatearen kapitaltzat hartu behar badira”

Hamar. 26. artikulua 1. apartatuaren c) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“c) Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikuluan ezarritako kontribuzioa aplikatzen den ondasun eta eskubideen eskuraketak, hau da, artikulua horretan ezarritako helburuak betetzeko egiten direnak”

Hamaika. 26. artikulua 4. apartatua aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“4. Toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina arautzen duen 1/2021 Foru Dekretu Arauemaileak 9. artikuluan xedatzen duenaren arabera, udalek hobaria eman ahal izango diete kooperatibei buruzko legeen arabera eraturako kooperatiba babestuei, hain zuzen ere honako toki zerga hauen kuotaren eta, behar denean, errekarquen ehuneko 95, gehienez:

a) Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

b) Nekazaritzako eta elikagaigintzako kooperatiben eta komunitate ustiapenerako kooperatiben landa-izaerako ondasunei dagokien ondasun higiezinaren gaineko zerga”

Hamabi. 27. artikulua 2. apartatuaren bigarren paragrafoa aldatzen da, eta honela gelditzen da:

“Nekazaritza Ustiategiak Modernizatzeko uztailaren 4ko 19/1995 Legearen 5. artikuluan aipatzen diren lehentasunezko elkarte ustiategiaren kasuan, baldin eta foru arau honen arabera bereziki babestutako nekazaritza eta elikagaigintza kooperatibatza hartzen badira, kuota likido orokorraren kenkaria ehuneko 75ekoa izango da”

Hamahiru. 29. artikulua c) letra aldatzen da, honela geratzen da:

“c) Toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina arautzen duen 1/2021 Foru Dekretu Arauemaileak 9. artikuluan xedatzen duenaren arabera, udalek hobaria eman ahal izango diete kooperatibei buruzko legeen arabera eraturako kooperatiben batasunei, federazioei eta konfederazioei, hain zuzen ere jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuotaren eta, behar denean, errekarquen ehuneko 95, gehienez”

Hamalau. 41. artikulua c) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“c) Bazkideekin edo haiekin Sozietateen Gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 42.3 artikuluan koka daitekeen lotura harremana duten pertsonak eta entitateak ez izatea egindako jardueren hartzaile nagusiak, eta ez izatea prestazio edo baldintza berezirik zerbitzuak lortzean onura ateratzeko. Letra honetan ezarritako baldintza ez zaie eskatuko ikasleen gurasoak, haien legezko ordezkariak edo ikasleak elkartzen dituzten irakaskuntza kooperatibei”

Hamabost. 43. artikulua 1. apartatuaren c) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“c) Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 72. artikuluan ezarritako kontribuzioa aplikatzen den ondasun eta eskubideen eskuraketak, hau da, artikulua horretan ezarritako helburuak betetzeko egiten direnak”

Hamasei. Xedapen iragankor bat gehitzen da, bigarrena (orain indarrean dagoena lehena izango da); hona testua:

“Bigarrena. Zeharkako partaidetzak kooperatiba ez diren entitateen bidez.

Foru arau honen 12. artikulua 9. apartatuaren bosgarren paragrafoan xedatzen dena ekonomia suspertzeko neurriak, TicketBAI aplikatzeko neurriak eta zergen arloko neurri batzuk ezartzen dituen foru araua indarrean jarri ondoren egiten diren eskuratzeei dagokienez aplikatuko da”

9. artikulua. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

Honako aldaketa hauek egiten dira Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak eta haiek aplikatzeko jarraibidea onartu dituen uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretu Arauemailean (aldaketek 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak):

Bat. Tarifen lehenengo atalaren 661. taldeari beste epigrafe bat gehitzen zaio, 661.9; hona testua:

“661.9 epigrafea. Azalera handietan integratutako edo beste merkataritza misto bat, hau da, jendearentzako erakusketarako eta salmentarako 2.500 m² edo gehiagoko azalera erabilgarria duten establezimenduetan modu espezializatuan egindakoa, hala nola brikolajearekin eta etxeko ekipamenduarekin, etxeko eta bulegoko altzariekin, artikulua elektronikoen eta etxetresna elektrikoekin, automobilerako artikuluekin, kirolerako artikuluekin edo bestelakoekin lotutakoak.

Kuota:

10.000 m² arte: 1,443036 euro m²-ko.

10.001 - 20.000 m²: 1,391499 euro m²-ko.

20.001 - 30.000 m²: 1,288425 euro m²-ko.

30.000 m² baino gehiago: 1,185351 euro m²-ko.

Oharra: Publikoarentzako erakusketarako eta salmentarako azalera erabilgarritzat hartuko da zuzenean saltzeko artikulua erakusten dituen, estalirik egon edo ez, eta kontsumitzaileak benetan erabil dezakeena.”

Bi. Tarifen lehenengo atalaren 661. taldeari dagokion 2. ohar orokorra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“2. Talde honetako kuotak kalkulatzeko, establezimenduaren azalera osoa zenbatuko da (biltegi handia, hipermerkatua, herri-biltegia edo beste azalera handi bat), bulegoetarako, apartakaleku estalietarako, biltegiarako eta abarretarako eremuak barne. Halaber, hirugarrenek erabilera lagapenaren edo beste edozein tituluren bidez okupatutako eremuak ere zenbatuko dira. Hala ere, estali gabeko azalera ez dira zenbatuko, horien xedea edozein dela ere.”

Hiru. Tarifen lehenengo atalaren 664. taldean beste epigrafe bat gehitzen da, 664.2; hona testua:

“664.2 epigrafea. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak.

Udaleko gutxieneko kuota: 13,976834 euro kargatzeko puntu bakoitzeko.

Kuota hori kargatzeko puntua kokatuta dagoen establezimenduaren edo lokalaren titularrak bakarrik ordainduko du.

Estatuko kuota: 13,976834 euro kargatzeko puntu bakoitzeko.

Kuota hori kargatzeko puntuen jabeak bakarrik ordainduko du.”

10. artikulua. Arabako Zergen Foru Arau Orokorra aldatzea

Beste apartatu bat, 4 bis, eranstean zaio otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauari (Arabako Zergen Foru Arau Orokorra), 42. artikuluan. Honela idatzita egongo da:

“4 bis. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak (sozietateen gaineko zergarena) 66. artikuluko 3. apartatuko lehenengo paragrafoan xedatutakoaren ondoriozko zerga zorra ordaintzeko erantzule solidarioak izango dira, halaber, artikulua horretako 2. apartatuan ezarritako erantzukizunpeko adierazpena izenpetu duten administratzaileak, entitateak ez badu betetan ezarri bezala bereizkeriarik ez egiteko obligazioa.”

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Prestazioak COVID-19 birusaren hedapenari eusteko neurrien ondorioz langile autonomoek jarduera uzteagatik.

Jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek COVID-19aren ondorioz onetsitako araudian eta, bidezkoa izanez gero, haren indarraldia luzatzea arautzen duten xedapenetan jarduera ekonomikoa bertan behera uzten dutenentzat ezarritako prestazioa jasotzen badute, prestazioaren zenbatekoa jarduera ekonomikoaren etekintzat joko da. Honek 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. COVID-19ak kolpatutako enpresak birkapitalizatzeko funtsa.

COVID-19aren pandemiari erantzuteko enpresa kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuak, COVID-19ak kolpatutako enpresak birkapitalizatzeko funtsa sortzen duenak, 17. artikuluan xedatutakoa aplikatuz zuzenean edo zeharka eratorritako ondare eskualdaketa, sozietate eragiketa eta egintza guztiak, eta are funts horren kargura partaidetutako enpresen finantza eta ondare kapitalizazio edota berregituraketarako gauzatzen diren funts ekarpenak edo kapital gehikuntzak ere, salbuetsita egongo dira Arabako Lurralde Historikoaren araugintza eskumenekoak diren zerga itundu guztietatik. Honek 2021eko martxoaren 13tik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Hirugarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa egin beharra.

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko 2021eko zerga neurriak onartzen dituen abenduaren 1eko 14/2020 Zerga Premiako Araugintzako Dekretuaren 1. artikuluan edukiaren indarraldia 2022ko zergaldirako luzatzen da.

Laugarrena. Kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenetatik datozen eta helburu jakin batzuetara bideratzen diren zenbatekoen salbuespeneko zerga araubidea.

Bat. Xedapen hau fiskalki babestuta dauden kooperatibei aplikatuko zaie, baldin eta kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenaren zati osoa edo zati bat xede hauetakoren baterako bideratzen badute, kasuan kasuko araudiak horretarako aukera ematen duelako:

a) Finantza baliabidea kooperatibak likidezia eduki dezan, jardunerako behar badu; halako kasuetan, aplikatzen den zenbatekoa urtero sortzen diren erabilera askeko emaitzen ehuneko 30arekin, gutxienez, itzuli beharko da, harik eta kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena ezohiko aplikazioa erabaki zenean zeukan zenbatekora iritsi arte, hamar urtean gehienez ere.

b) COVID-19aren osasun krisia geldiarazten edo haren ondorioak arintzen laguntzen duen edozein jarduera, ekintza propioen bidez edo beste erakunde publiko edo entitate pribatu batzuei dohaintzak eginez.

Bi. Kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena aurreko lehen apartatuan aipatutako helburuetarako erabiltzen bada, erabilera horren zenbatekoa ez da ekitaldiko diru sarreratzat hartuko, ekarpena aplikatzen den ekitaldian, eta ez da fiskalki babestutako kooperatibaren izaera galduko; beraz, ondorio horietarako soilik, ez da aplikatuko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauaren 123 artikuluan eta 17.4 artikuluan xedatutakoa.

Xedapen hau kooperatibek 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egiten dituzten kooperatiben hezkuntza eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenei aplikatuko zaie, hain zuzen ere bertan aipatzen diren ezohiko helburuetarako egiten dituztenei.

Bosgarrena. PFEZeko salbuespen jakin batzuen luzapena.

2022ko zergaldira luzatzen da abenduaren 1eko 14/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak, zeinaren bidez onesten baitira COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko 2021erako zerga neurriak, 2. artikuluko bi apartatuan xedatutakoa.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. Zerga ordenantzak moldatzeko epealdia

Toki erakundeek 2022ko ekainaren 30era arteko epealdia edukiko dute zerga ordenantzetan behar diren aldaketak egiteko beren araudia foru agindu honetan ezarritakora moldatzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetuta geratzen dira foru arau honetan xedatzen denaren aurkako maila bereko edo behegaroko mailako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, ondorioak sortzen hasteko egun jakina ezarrita duten manuak izan ezik.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 23a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA